

Arrasate

PRESS

ARRASATE • ARAMAIO / Egubakoitza / 2001eko urriaren 19a / 558. zenbakia



**Zorionak Erguin
Herri Eskola!**

ORAIN ETA HEMEN: ETXEBIZITZA ADIMENDUNAK /8 • KIROLAK: ZALDIBARKO TXAPELKETA JOKOAN /11

Osasun Gida

AKUPUNTURA

- INTEGU (Masajea, Osteopatia) Iturriotz kalea, 10-1 ☎ 943 77 13 34

DERMATOLOGIA

- CONCEPCION TAMAYO Dk. Maalako Errabala, 23-2.A. ☎ 943 77 05 57

ERREUMATOLOGIA

- GOROSARRI - TROJAOLA Dreak. Zaldibar, 1-1. ☎ 943 77 00 40

FISIOTERAPIA - GAIBERRITZEA - ERREHABILITAZIOA

- ANDONI ETA MARIA. BASTERRETxea Errehabilitazio Zentrua Olarte 43 Bis ☎ 943 77 03 96
- HONORIO IZQUIERDO Mendia jauregia. Erdiko kale, 22. ☎ 943 79 72 16
- FRANCISCO JAVIER LOPEZ DE MUNAIN. (Medikua) Zaldibar, 4-1 ☎ 943 77 14 72

LOGOPEDIA

- ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Erdiko kale, 37 ☎ 943 79 79 46
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga, 10 ☎ 943 79 48 77

MASAJEAK

- JOSE LUIS ABUIN (Quiromasajea, akupuntura, naturopatia) San Josepe, 10 Behea, D (Kiroldegian ere bai) ☎ 943 77 01 33

ODONTOLOGIA

- ADUR odontologia institutu medikua Iturriotz, 35 ☎ 943 79 95 60
- ARRASATE HORTZ KLINIKA Iturriotz, 17-1 Ezk ☎ 943 79 72 23
- ARREGI HORTZ KLINIKA zerkaosteta, 19 behea ☎ 943 79 71 90
- GIPUZKOako odontologia espezialitateen zentrua. Iturriotz, 7 Bis ☎ 943 79 73 88
- IRIARTE IRURETA, ANE MAITE Iturriotz, 7- 1 ☎ 943 79 69 45
- LOPEZ DE GOIKOETXEA (Goiz eta arratsalde) Alfonso X. Jakintsua, 5 ☎ 943 79 17 74
- LORENZO MARTIN, RAFAEL Zarugalde, 3- 1.-B ☎ 943 77 12 63

OPTIKA

- ARRASATE OPTIKA (Optika, Optometria eta kontaktologia) Kontzeziño, 6 ☎ 943 79 25 98
- LARRAÑAGA OPTIKA (Optika eta optometria) Juan Carlos Guerra, 1 ☎ 943 79 29 95

ORTOPEDIA

- ORTO LAGUN ORTOPEDIA Kontzeziño, 2 ☎ 943 79 89 34

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

- UDALAITZ MEDIKU-ZENTRUA (Analisi klinikoak, R-X) Ferrerías, 56-Behea ☎ 943 79 44 22

OSTEOPATIA

- NEREA BENGUA (Bizkarreko minak eta lunbalgiak) Azoka kalea, 4. (Mobila) ☎ 659 58 66 89

PSIKOLOGIA

- ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Erdiko Kale, 37 ☎ 943 79 79 46
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga, 10 ☎ 943 79 48 77
- TXOMIN NUÑEZ Olarte, 10 ☎ 943 79 88 16

UROLOGIA

- LLUCH, ALBERTO (Centro Médico Udalaiz) Ferrerías, 56 ☎ 943 79 44 22

KALEINKESTA/ Gescarteraren kontue dala-eta, gure aurrezkixek seguru dagoz?



IBAN HERRARTE
Langillie

Diru gutxi dago, hortaz, lapurketie gure badaue be, gutxi lapurtu ahal izengo daue!



MANOLI CAMPOS
Etxekoandrie

Seguru-seguru, ez dirue ezta geu be, iñun, neure ustez, behintzet!



IDOIA FERNÁNDEZ
Langillie

Ez, ez dot uste. Neuk, bada-
ezpada be, ez neuke inber-
tiduko!



ARACELI MORENO
Jubilaue

Arriskuan gagoz danok,
neure ustez. Ez naz bat be
fixetan holako kontuekin!



ALEJANDRO ROPERO
Langillie

Nik neuk, behintzet, ez dot
sekula be holako inbertsi-
ñorik egin, eta oin sekula
baiño gutxiago inbertiduko
neuke.



AMADOR RIVAS
Langillie

Ez, ez dagoz seguru. Nik ez
neuke holako gauzetan
inbertiduko; gaiñera, biher
dan dirue be ez daukot!

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK PARETA, ZURI Pareta bat hain garbi ikusteak ez luke txisturik mereziko, baina kasu honetan, bai; txistu txiki batzuk, besterik ez bada. Kontua da Seber Altube plazako egoitzako kanpoaldean mural eder bat margotu zutela Euskal Herrian Euskaraz taldekoek, eta udaleko langileek, pintada zakar bat zelakoan, nonbait, garbitu egin dute. Tira, deskuiduan izan zen eta... /LEIRE KORTABARRIA

ETABARRUAN...

ORAIN ETA HEMEN /7

Kultura etxea, udaberriari

Udaberri partean hasiko dira kultura etxe berriko lanak ospitale zaharreko eraikinean.

KIROLA /11

Errugbikoaren lehen partidua

Arrasateko errugbi taldeak denboraldiko lehenengo norgehiagoka jokatu-ko du zapatuan

KULTURA /15

Solasaldi mistoak

Emakume Sailak antolatutako literatura jardunaldiak gizonendako ere izango dira aurtan.

ASTEKODATUA

187

MILIOITIK GORA KOSTATU DIRA KIROLDEGIKO OBRAK

Musakolako Kiroldegiako obrak 187.625.021 pezetá kostatu dira. Abenduan hasi zituzten lanak, eta gaur bertan inauguratu dute kiroldegi berria. Hasierako aurrekontua 176 milioikoa zen.

BESTEKEKESANA

“75 lagunek, horien artean ume batzuk, Trintxerpeko kaleetan zehar kale-agerraldia egin zuten, eta euren

pankartan hauxe irakur zitekeen: **Casimiro, zurekin gaude. Casimiro Martínez garbiketa alorreko enpresaria eta ADELekeko presidentea da, eta beraren enpresatik bost langile kanporatu ditu, 43 eguneko greba egin ondoren. Kanporatutako langileek egiten ari diren kanpaldia eta ESK, LAB, CC00 eta ELAko ordezkariak kaltetuei eman dieten babesari aurre egiteko antolatu zuten aipatu dudun kale-agerraldia. Mundua zeharo aldrebestuta ei dago. Gainera, kale-agerraldian zihozenak aspalditik gaizki ordaindutako behin-behineko kontratu prekarioen truke lan egiten dute.”**

JABIER ABALDE (ESK)
GARA / 2001/10/15

HERRITARRENBERBAK/ Txipi Ormaetxea



*Gaurkoan,
umore
apurtxo bat*

Munduan gerra, gosea, botere-nahia, gorrotoa... dira nagusi. Euskal Herrian ere ez gaude “etxafleroak” botatzeko moduan. Neure burua ez dut ikusten gai pil-pilean ditugun kontuez ezer berri eta jakingarrik esateko. Bestalde, idazten dudun apurretan kontu serioez ari naiz ia beti. Gainera, tarteka ispiluan begiratu eta gero eta tipo serioagoa ikusten dut aurrean.

Ez, ba! Egoera latza izan arren, gaurkoan umore apurtxo bat bialdu gura dut leiho honetatik.

Uda partean aspaldiko Zeruko Argiak (1968-1970 ingurukoak) begiztatzan aritu nintzen egun batzuek. Orduan bazen Txomin izenez sinatzen zuten mondragoetar bat umorezko zutabe bat (Izkirimiriak) idazten zuena. Horra berak kontatzen duen pasadizo bat niri lehen aldiz entzun edo irakurri nuenetik sekulako grazia egin izan didana.

Ba omen zeuden mondragoetar bi Ameriketako Far West-eko herri bateko Saloon batean lasai asko. Honetan sartzen da Cow-boy bat bi eskuak gerrian alde banatara zituen pistola-kulaten gainean ipinita, eta alde guztietara begira erronkari. Ikusi orduko, mundu

“Ba omen zeuden mondragoetar bi Ameriketako Far West-eko herri bateko Saloon batean...”

guztiak hankak jaso zituen. Mostradore-
a ailegatu eta
“whiski!” esaten du garratz. “Trabeneria” edaria zerbitzatu orduko gerizatu zen, ikaraz. Orduan, mondragoetar batek esaten dio besteari: “Ño! Hori dok tipue! Horrek euko jok

jenixue! Cow-boy-ak orduan: “Zer, mutillak, euskaldunek?” Ustekabean harrapatuta, eta artean sinistu ezinik, erantzuten diote: “Baai... euskaldunek... gu mundrautarrak”. Orduan Cow-boy-ak, bere gorputzaren pisu guztia atzeraka, ukondoaz mostradoreari eman, eta atzamar takadatxo bere kapela zerbait atzeratuaz, esaten die patxadaz eta sano-sano: “NI... MAZME-LAKUE”.

Arrasate

Otalora Lizentziaduna, z/b
20500 ARRASATE
Tel.: 943 71 25 11
Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA
Iker Barandiaran

ERREDAKZIOA
Ubane Madera,
Xabier Urzelai

MAKETAZIOA
Alex Azkarate

PUBLIZITATEA
Arantzazu Lagunilla,
Izaskun Bolinaga,
Natali Martínez
Imanol Elortza

ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

LEGE-GORDAILUA
55-1124/88

ISSN
0214-4654

TIRADA
7.160 ale

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurilaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Arrasateko
Udala



Aramaioko
Udala

GUARDIAKOFARMAZIAK

EGUBAKOITZA, 19
Zabala, Zarugalde 42..... 943 77 16 30

ZAPATUA, 20
Ruiz, Maala 31..... 943 79 14 09

DOMEKA, 21
Morales, Araba 17..... 943 79 18 65

ASTELEHENA, 22
Azkoaga, Ferrerías 1..... 943 79 15 15

MARTITZENA, 23
Azkoaga, Iturriotz..... 943 79 79 99

EGUAZTENA, 24
Corcuera, Aranbarri 1..... 943 79 22 26

EGUENA, 25
Irizar, Erguin 11..... 943 79 12 39

TELEFONO JAKINGARRIAK

ERIETXEAK
Arrasateko Eskualde-Ospitalea..... 943 03 53 00
Iguatorialdea..... 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea:
Gizonak..... 943 79 39 00
Emakumeak..... 943 79 44 11
Buru osasunerako zentroa..... 943 79 90 11

LARRIALDIAK
SOS Deiak..... 112
Gurutze Gorria..... 943 76 55 76
DYA..... 943 78 71 57

ANBULATORIOAK
Guardiako medikua..... 943 46 11 11
Astehenetik
egubakoitzera..... 17:00etatik 08:30era
Zapatuetan..... 14:00etatik 08:30era
Asteburu eta jaiegunetan..... egun osoa

Arrasate
Astehenetik
egubakoitzera..... 08:00etatik 17:00etara
Zapatuetan..... 09:00etatik 14:00etara

- Txanda hartzeko:
medikuntza orok. eta pediatria 943 03 52 50
- Espezialitateak..... 943 03 53 11
- Ikuskatzailea..... 943 03 52 52
- Kanpoko kontsultak..... 943 03 53 11

ANBULANTZIAK
Gipuzkoako ambulanziaz..... 943 45 87 44

ERTZAINZAK
Arrasate..... 943 79 71 99

SUHILTZAILAK
Udal taldea..... 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua..... 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea..... 088

MATXURAK
Urak (Udal zerbitzua)..... 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero)..... 943 12 01 62
Gasa..... 900 40 05 23
..... 943 79 78 44

GARRAIOAK
Taxiak..... 943 79 12 22
PESA..... 902 10 12 10

HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ETXEAK
Iturbide egoitza..... 943 79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza..... 943 79 81 57

MONTEIRON LIBURUTEGIA
Monterron..... 943 77 01 05

MEZAK

San Joan parrokia	San Andres eliza
Zapatua	Zapatua
19:00 (elebiduna)	19:00 (elebiduna)
Domeka	Domeka
09:00 (gaztelaniaz)	10:00 (elebiduna)
11:00 (meza nagusia)	11:00 (euskarakaz)
(euskarakaz)	12:00 (gaztelaniaz)
12:30 (elebiduna)	13:00 (gaztelaniaz)
San Frantzisko eliza	Santa Teresa eliza
Zapatua	Zapatua
19:00 (elebiduna)	19:00 (elebiduna)
Domeka	Domeka
09:00 (euskarakaz)	10:30 (gaztelaniaz)
10:00 (gaztelaniaz)	11:30 (euskarakaz)
11:00 (meza nagusia)	(euskarakaz)
(euskarakaz)	12:30 (gaztelaniaz)
12:30 (gaztelaniaz)	Santa Marinako eliza
19:00 (gaztelaniaz)	Jaiégun bezpera
Uribarri parrokia	eta zapatua
Zapatua	19:00 (gaztelaniaz)
19:00 (elebiduna)	Domeka
Domeka	12:00 (gaztelaniaz)
11:30 (euskarakaz)	
12:30 (gaztelaniaz)	

OHARRAK

ARGAZKI ERAKUSKETA
Urriaren 19tik 31ra, Udalak antolatutako argazki lehiaketan jasotako lanen erakusketa izango da Monterronen.

1949AN JAIOTAKOEN BILERA
1949an jaiotakoek kinto batzarra antolatu dute urriaren 27rako, zapatua. Meza izango dute San Frantziskon, 13:00etan; txikiteoa handik ordu erdira, eta bazkaria Musakolako Hostal-en, 14:30ean. Izena ematerakoan, 5.000 pezeta utzi behar dira. Horretarako, jo Lore edo Zabaleta lurrindegietara edo Biteriko kioskora.

SOLDADURA IKASTAROA
Udalak emakumeei zuzendutako 400 orduko soldadura ikastaroa antolatu du. Aretxabaletako Institutuan emango dira eskolak, urriaren 15etik martxoaren 18ra, 08:15ean. Argibide gehiagorako edo izena emateko, jo Udaletxera edo deitu 943790900 telefonora.

LUDETEKETAN MATRIKULAZIOA
Zabalik dago Erdialdeko eta Santa Marinako ludoteketan matrikulatzeko epea; egoitzetan bertan egingo da. Hiru eta 12 urte artekoek zuzendutako ekimena da. Astegunetan zabalduko dira ludotekak, arratsaldez.

AEDrenAGENDA

ZERAMIKA TAILERRA
Ekin elkarteak luzatu egin du zeramika tailerrean izena emateko epea. Urriaren 29a duzue azken eguna.

BEGIRALE TXIKILANDIAN
Txikilandia jolasparkean begirale izateko aukera dute 18 urtetik gorakoek. Izena emateko, jo Txatxilipurdira azaroaren 30a baino lehen.

URBANOENORDUTEGIA

San Lorentzo / San Juandik irteerak
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.

GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorentzo (Soraluze aurrean), Mugertza, Zubieta, San Martin plaza, San Antonio (Zumelaga aurrean), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegaraieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

Labegaraieta / Olabarrenetik irteerak
07:20, 07:35, 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.

GERALEKUAK: Labegaraieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espolonia (Mintegi), San Pedro, Arrurriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

ORAINDELA 10URTEARRASATEN

Lan handiak, aho batez onartu zituen Udalak

Amaia antzokia berritzeko, Santa Barbara parkea urbanizatze-ko eta San Kristobalen udal-hilerri berria eraikitzeko adjudikazioak egin ziren joan den egubakoitzeko osoko bilkuran. Hiru erabakiak aho batez onartu ziren, Hirigintza batzordeko oniritzia zuten-eta.




BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru



"Mendigoizale"

Mendizale talde bateko kidie.
-Guti zarra mendigoizale amorratue zuan.

ARRASATE IRRATIA FM 107.7



Martin Garitanoren 80 eguneko bidaia

Martin Garitano eta Fermin Munarriz *Garako* kazetariak munduan zehar bidaia egin dute aurten. Bidaia oso bitxia izan da, 80 eguneko ia izan da-eta. Gainera, bidaiaren inguruko bizipenak jasotzen dituen liburua atera berri dute. Martitzenean, 10:00ak inguruan, Martin Garitanorekin bat egingo du Arrasate Irratiak. Astehenean, bestalde, Igelaren Banda taldearen disko berria aurkeztuko du Aitziber Azkondok, 11:00etatik aurrera. Igelaren Banda taldea 1998. urtean sortu zen.

Asteko errepassoan, Lope Agirre

Asteburuan aukera izango duzue aste barruan eskainitako elkarrizketa batzuk berriro entzuteko. Hauek errepikatuko ditugu oraingo asteburuan: Lope Agirreraren inguruko elkarrizketa Julen Arriolabengoaren eta Gerardo Elortzaren eskutik; Asier Aranguren inguruko; *Goienkariaren* edizio berrien gainekoa; eta Edorta Aranari egindakoa, telebistaren gainean. Egun eta ordu desberdinetan izango duzue entzuteko aukera. Egubakoitz gauean, zapatuan eta domekan.

HAUGIROA!

ASTEKO MINIMOA **9 °C**
Martitzena, 16

ASTEKO MAXIMOA **30 °C**
Egubakoitza, 12

ASTEKO EURIA **0 L**
(L/m²)

	Max.	Min.	Euria
Eguena, 11	20 °C	11 °C	- l/m ²
Egubakoitza, 12	30 °C	19 °C	- l/m ²
Zapatua, 13	23 °C	16 °C	- l/m ²
Domeka, 14	27 °C	18 °C	- l/m ²
Astehena, 15	25 °C	15 °C	- l/m ²
Martitzena, 16	25 °C	9 °C	- l/m ²
Eguaztana, 17	27 °C	15 °C	- l/m ²

Erdialdean jasotako datuak



ASTEKO PROGRAMAZIOA

ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA
09:00 Albistegia
09:30 Igo autobusera
11:30 Albistegia
12:00 Musika
14:00 Errepikapena

ASTELEHENA
21:00 Maiuskulaz idatzitako rocka

MARTITZENA
21:00 Hi bizi hadi

EGUAZTENA
21:00 Hitz eta pitz

EGUENA
21:00 Gailurretik

EGUBAKOITZA
20:00 Azkenberri.com
21:00 Draxtor
22:00 In session
23:50 Asteko elkarrizketak

ZAPATUA
10:00 Musika klasikoa
11:00 Asteko elkarrizketak
23:50 Asteko elkarrizketak

DOMEKA
11:00 Asteko elkarrizketak

ASTEABIHITZETAN

Amaia antzokia, abendurako gertu

Amaia antzokiko obrak uste baino bizkorrago doaz. Kultura Sailekoei obren arduradunek esan dietenez, abenduaren lehenerako bukatuta izango dira lanak; hortaz, hilabete horretan, ohiko kultura ekitaldiak egin ahal izango dira Amaian.

Zatirik zailena egin dute, intsonorizazioa, alegia. Inguruan bizi direnak sarri kexatu izan dira zarata handiegia heltzen zitzaiela-eta. Lanotan diru dezente gastatu behar izan da. Guztira, 222 milioiko kostua dute antzokiko obrek.

Emakumeon historia tailerra, arrakastatsua

Hogeita hamar bat emakume mondragoetarrek eman zuten izena Emakume Sailak antolatutako azken tailerrean parte hartzeko. Euskal Herriko emakumeon historiaren inguruko tailerra da, hain zuzen. Oraingoan kanpoan geratu direnendako itxoite zerrenda zabaldu dute. Marta Brancas-ek, tailerraren dinamizatzaileak, esan duenez, "ez da errekonozitu emakumeok euskal historian egindako lan garrantzitsua". Mondragoen ere badago, adituaren ustez, horren eredurik: ez dago emakumeon izena daraman kalerik.

Araba etorbideko espaloiak berrituko dira

Araba etorbideko espaloiak berritzeko lanak adjudikatu berri dituzte. Horrela onartu zuen Gobernu batzordeak joan den astean, hilaren 15ean. Mariezkurrena enpresak irabazi du esleipena, 4.712.000 pezetako aurrekontua aurkeztuta. Araba etorbidean gaur egun egiten ari diren lanak aprobeztatuko dituzte espaloiak berritzeko.

Era berean, kale horretan bertan telematikako eroanbi-deak jartzeko proposamena egin zen, baina, oraingoz, behintzat, mahai gainean geratu da. Baliteke datozen asteotan horren gainean erabakiren bat hartzea.



Udalatx Eguna

Mendizale ugari parte hartu zuten joan den egubakoitzeko Udalatx Egunean. Gurutzeak 30. urteurrena duela-eta, jai berezia izan da. Urtero moduan, hildako mendizaleekin oroitu ziren, tartean, Udalatx Taldeko hiru kiderekin: Julio Bergaretxe, Anatolio Saiz eta Joxe Mari Beltrán.



USTEAKUSTE/ Iker Barandiaran

Askatasun murrizketak

Dorre bikien suntsiketa argudio hartuta, Estatu Batuek eta mendebaleko gobernuak aurrera daramaten "gerra santua"ren eraginez, tamalez, beste behin gehiago, munduan zehar zenbait talde eta mugimenduk askatasun murrizketa handiak jasan beharko dituzte, seguruenik.

Etorkizun laburreko gertaera hauek, batez ere,

"askatasunen herrialdea" deitzen duten horretan gertatzen den beste askatasun murrizketa bat gogorarazi didate, batzuek hain larria izango ez dena, baina herrialde "santu" horrek dituen ezaugarrien adierazgarri dena: erretzaileek sufritzen duten jazarpena, hain zuzen ere.

Burura etorri zaizkit duela hilabete asko EEBBeta-

ko kartzela baten jazotako istiluak, kartzela haren barnean erretzea debekatu zutelako -Itxuraz, gainera, ez da debeku hori ezarri duten lehenengo kartzela-. Ustez, erretzaile ez ziren presoek bultzatu zuten debekua, besteen keak sufritzeak euren zigorra areagotzen zuelako. A ze askatasun eta ze elkartasun! Erretzaileak ghettoetara bultzatzen dabilta eta ghettoetan ere ez dago erretzerik.

ASTEKOIRUDIA



JOSU TXINTXURRETA

ZUHAITZ BERRIAK LANDATU ZITUZTEN SEBER ALTUBE PLAZAN

Luze itxaron ondoren, azkenean Seber Altube plaza hasia da bere lehenengo itxuraren antza berreskuratzen. Orain asko ez dela berritu zuten herriko erdialdeko plaza hori; eta joan den eguaztenean, urriaren 10ean, hain zuzen ere, zuhaitz berriak landatu zituzten.

Parques y Jardines de Abadiano enpresak egin zuen lana. Bi astigar edo eihar, bi lizar eta haritz bat jarri zituzten. Portaloian, jarlekuen ondoan, beste lizar bat landatu zuten. Zuhaitz guztiak 8tik 20 urtera bitartekoak dira, eta enpresak Iurretan dituen mintegitik ekarri dituzte. /LEIRE KORTABARRIA

UGARAN
jatetxea

Garagartza auzoa
Tel: 943 79 76 58
ARRASATE

M
MEMESA


Industria
hornidurak

Tel. 943 71 24 25

P **Pando**
Errotuloak

Gipuzkoa etorbidea 6
(Legarre Pabiloia)
Tel.-Fax: 943 79 79 70

- Argidun kartelak
- Ibilgailuak
- Stand-ak
- Itsasgarriak
- Biniloa
- Señalizazioak
- Lonak
- Erliebedun hizkiak

 **Gambrinus**
garagardotegia

- Menua:
bazkariak eta afariak
- Karta
- Errazioak

Otalora Lizenziatua. 40-42
Tel.: 943 79 53 32

HEZKUNTZA/ Erguin auzoko ikastetxeak hogeit hamar urte bete berri ditu: une aproposa orain artekoa baloratu eta egungo hezkuntza planteamenduak lantzeko

Erguin Herri Eskola: 20 urteren buruan, erronkaz betetako etorkizunari begira

LEIRE KORTABARRIA

Badira hogeit hamar urte ezer ez direla esaten dutenak. Esaldi hori ezin dakioke Erguin Herri Eskolaren kasuari aplikatu. Izan ere, eskola horrek hogeit hamar urte bakarrik bete baditu ere - irailan izan du urtemuga -, epe horretan gauzak zeharo aldatu dira irakasle eta ikasleentzako.

1981-82 izan zen Erguin Herri Eskolaren lehenengo ikasturtea. Baina inaugurazio urteak horiek izan arren, ikastetxe hori Arrasateko beste baten jarraitzailea eta, era berean, apurtzailea izan zen.

Jarraitzailea, orduan bazego-elako Arrasaten ikastetxe publiko bat, Urribarrin, eta hango ikasle eta irakasle asko hezkuntza erakunde berrira pasatu zirelako. Eta apurtzailea, Erguingoa beste plangintza baten barruan jaio zelako. Izan ere, ordura arteko eskola publikoak Espainiako Barne Ministerioaren mende zeuden. 80ko hamarkada hasieran sumatu ziren lehenengo aldaketak zentzu horretan.

Erguin Herri Eskolako oraingo zuzendariak, Arantxa Mendarozketak, dioenez, "eskola ireki eta oso gutxira pasatu zen hezkuntzaren eskuduntza Eusko Jaurlaritzara. Ordutik aurrera hasi zen herri eskolen aroa".

HIZKUNTZEN TRATAMENDUA

Hizkuntza erabilera ere aldatu egin zen. 80ko hamarkadara arte, A ereduaren nagusi eskola publikoetan; pixkanaka-pixkanaka, B ereduaren lekua hartuz joan zen, gaurko egoerara iritsi arte. "Gaur egun, ez da berbarik egiten hizkuntza ereduaz, hizkuntzen tratamenduz baizik. Euskara, gaztelania eta ingelesa zelan erabili, noiz hasi irakasten... horiek dira gaurko eztabaida nagusiak", dio Arantxa Mendarozketak.

Eskola sortu zenetik hona, irakasleek lan handia egin dute, ez bakarrik euskara sustatzeko, baita beste hizkuntzen irakas-



ALEXAZKARATE

Haur eta Lehen Hezkuntzako 161 ikasle ditu gaur egun Erguingo euskal eskola publikoak.

kuntza modua finkatzeko ere. Oraindik lan handia egin beharra dagoela onartu digu Erguin Herri Eskolako arduradunak: "Hizkuntzen tratamendua eten barik lantzen dugun esparrua da.

Hasiera baten, B ereduaren bultzatzen saiatu ginen; horretarako, ibarreko beste hainbat irakasleekin egin genuen lan. Horretan, aitzindarien artean izan ginen. Baina bertan behera utzi ezine-

ko gaia da. Dinamika horretan jarraitzen dugu".

HEZKIDETZA

Pedagogiak aldaketa sakonak izan ditu. Horren eredu, azken lau

urteotan Erguin Herri Eskola beste ikastetxe batzuk bezala, buru-belarri lantzen ari den proiektua: hezkidetza.

Udalak indarrean jarritako proiektu horren bidez, giza balioetan sakontzen dute, ikasleek bai eta irakasleek. Hasieran, mutikoen eta neskatilen arteko hezkuntza desberdintasunak galarazteko plana zen; pixkanaka-pixkanaka, ordea, giza balio gehiago landuz joan dira: hala nola, elkarbizitza, autoestimua, errespetua... Zuzendariak "oso beharrezko" jotzen du hezkidetza: "Hezkuntza jakituria teorikoak ematea baino gehiago da, pertsona moduan garapen integrala ematea".

TEKNOLOGIA BERRIAK

Hizkuntzen erabilera berrian lehenengotakoa izan bazen Erguin eskola, ez du lan txikiagoa egin beste arlo batzuetan, teknologia berrietan, adibidez.

Zuzendariak gogoan du honakoa: orain hamabost bat urte, Eusko Jaurlaritzak ikastetxetan informatikaren erabilera aztertzeke programa bat antolatu zuen, eta Erguin Herri Eskolari ikastetxe pilotu izateko proposamena egin zion. Hemen ere, gauzak azkar joan dira: "Hasieran, informatika gela bat geneukan, eta han ematen ziren eskola bereziak; gaur egun, txikien gelan ordenagailuak daude, eta internet erabiltzeko gela bat dugu", konparatzen du Arantxak.

"Makillasaldarekin, eroak ikasten" ... bai zera!


Hezkuntza, neurri handi baten, jolasa ere bada. Hori ondo dakite munduko edozein ikastetxetako arduradunek. Iraganean lurperatuta geratu dira "jakintsu da astua, makilla du maixua" moduko esanak egiztat hartzen zireneko garaiak.

"Pedagogia aldetik, gauzak asko aldatu dira", diosku Arantxa Mendarozketak, Erguin Herri Eskolako zuzendariak. "Eskola publikoak herri eskola

bihurtu baino lehenagoko sasoiaren, eskolak oso magistralak ziren; irakasleak jakituria transmititzen zien ikasleei, eta hori zen kontua. Orain, beste sistema batzuk erabiltzen dira: txokoak, eskola zabalak..." Ez da hori zentzu horretan gertatzen den aldaketa bakarra. Beste ikastetxe askotan moduan, Erguin Herri Eskolan ere, urtearen buruan, hainbat ospakizun antolatzen ditu eskola horrek: "Eskolaren eguna da gure

ospakizun berezia. Ikasturte bukaerako egun baten, aita-amak etortzen dira eta seme-alaben lanak ikusten dituzte", dio zuzendariak.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzak bultzatu izan ditu ikasleek antzerkia lantzeko jardunaldiak, eta Erguingo eskola hori onartzen lehenengoetakoa izan zen. Maiatz aldera, aste baten, ikasleek abestiak eta antzerki lanak taularatzten dituzte.



PEUGEOT

Salmenta eta zerbitzua

IBABE GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa, z/g. Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE



Erakusketa eta biltegia:
Kale txiki, 3 behea (Musakola)
Tel eta faxa: 943 77 11 20

Metal aroztegia eta PVC

Leihoak eta itxierak

Egur aroztegia

Leihoak
Ateak
Armairu enpotratuak
Armairu-fronteak
Mota guztietako zoruak
Lixatua eta bernizatua

Osagarriak

Neurrira egindako alfonbrak
Gortinak, mahai eta aukiak

Altzariak
Diseinua
Apainketa

M ARENAZA

Bizkai, 1 • ARETXABALETA
Tel.: 943 79 08 07

HIRIGINTZA/ Oñati kaleko biribila dela-eta, auzokideek Udalaren jarrera salatu dute

Oñati kaleko auzokideak haserre daude Udalarekin

UBANE MADERA

Oñati kalean egiten ari diren biribila dela-eta, hango auzokideak haserre daude Udaletik jasotako erantzunarekin. Prentsaurrekoan adierazi dute Udalak ez duela batere lanik hartu euren proposamenak aztertzen.

Oñati kalearen eta Gipuzkoa etorbidearen artean egiten ari diren biribilaren lanak aurrera doaz. Bitartean, biribil horren kokalekuarekin ados ez dauden Oñati kaleko bizilagunek euren aurkeztutako proposamenen gainean Udalaren erantzuna jaso dute, eta oso haserre daude erantzun horrekin. Besteak beste, Udalak esan dje euren aurkeztutako proiektuak egiteko eskalaren neurriak ez direla onargarriak.

BATZUEI KALTE, BESTEEI MESEDE

Oñati kaleko auzokideen uste-tan, mota horretako erantzunak lekuz kanpo daude. Uste dute Udalak ez duela erakutsi behar den seriotasuna euren proposamenak aztertzeke orduan. Era

Auzokideek salatu dute biribila Sukia enpresaren interesen arabera egiten ari direla

Udalak ere interes ekonomikoak dituela uste dute. Azalpenak eskatu dizkiote Udalari

berean, gaineratu dute egingo duten biribilak kalte egiten diela kaleko zenbait bizilaguni; eta aldiz, mesede egiten diela beste batzuei, IFAMeko etxebizitza berriei, alegia. Horrela, salatu dute etxebizitzak egiten ari den enpresa eta biribila egiten ari dena enpresa bera direla: Sukia Eraikuntzak. Eta, horrela, enpre-

sa horren interesen arabera egingo dutela biribila.

Argi utzi dute, euren ustez, euren aurkeztutako biribilaren egitasmoa guztiz bideragarria dela; orain egiten ari diren egitasmoa baino bidezkoagoa dela auzokide guztiendako, eta Udalari proposamen hori aurkeztu aurretik egoeraren azterketa sakona eta lan handia egin dutela.

Udalari eskatu diote argi dezala IFAMeko etxebizitzekin lotutako zenbait datu ekonomiko. Esaterako, Sukia Eraikuntzak enpresak Udalari ordaindu dion diru kopuruaren zuriketa egitea; auzokideen ustez, Udalak ez du garbi jokatu biribilaren gai honekin, euren ustetan, tartean dauden interes ekonomikoengatik. Era berean, auzokideen eta Udalaren artean dauden arazoak konpondu arte, lanak geratu egin beharko lituzketela uste dute. Edozelan ere, bien bitartean egoera hau salatu gura dute eta, oro har, Mondragoeko elkarte guztiei, eta bereziki, Musakolakoei, eskatu diete euren eskaerari babesa eman diezaioten eta euren aurkeztutako biribilaren alde egin dezaten.

LABUR

Dozena bat helegite eta herritar ugariren bisita jaso ditu Egitamu Orokorrak


Hilabetearen, 1.322 lagunek baino gehiagok ikusi dute Monterronen egon den Egitamu Orokorren gaineko erakusketa. Horrez gain, dozena bat helegite inguru jaso ditu, oraingoz. Edozelan ere, azaroaren 9a arte zabalik dago helegiteak aurkezteko epea; hortaz, oraindik egin daitezke proposamen gehiago. Esaterako, orain talde politikoak ari dira helegiteak aurkezten. Era berean, erakusketa itxi duten arren, oraindik badago informazioa eskatzeko aukera. Behin helegite guztiak jasota, horiek aztertu eta egokiak direnak onartu eta gero, Udalak beharrezkoak diren zuzenketak egingo dizkio egitamuari. Aldaketak handiak izanez gero, berriro ere zabalduko dute erakusketa herritarrendako.

Bestalde, eta Udaleko kontuekin segituz, Gobernu batzordeak erabaki berri du automobilen abiada murrizteko banda gehiago ipiniko dituztela. Hain justu, Loramendi kalean (Zepelin taberna inguruan), Erguinen (botika inguruan), Gorostizan (Erguin ikastetxetik gertu) eta Garibain (Villa Amparo inguruan) ipiniko dituzte. Helburua, ohi bezala, oinezkoen segurtasuna zaintzea eta bermatzea da.

Kultura etxe berria egiteko lanak datorren udaberrian hastea espero du Udalak

Herriko kultura etxe berria egiteko lanak datorren urteko lehenengo hiruhilabetearen hastea espero du Udalak. Orain, kultura etxeak izango duen banaketaren planoak egin eta aurkeztu dituzte. Gero, plano horien arabera arkitektoak exekuzio proiektua egingo du, eta exekuzio proiektua bukatutakoan hasiko dira lanak adjudikatu eta egiten. Hortaz, lan horien epeak exekuzio proiektuak ezarriko ditu. Edozelan ere, Udaleko Kultura Saitetik adierazi digutenez eta arestian aipatutako moduan, espero dute datorren urteko udaberrirako-edo lanak hastea.

Kultura etxe berria ospitale zaharrean kokatuko da, eta erabile-ra nagusiak izango dira liburutegia, erakusketa aretoa eta hitzaldi aretoa. Orain dela hamabi bat urte hasi ziren egitasmo horrekin, baina orain arte beti atzeratu izan da.



WERU®

Ate + leihoak



ERAKUSKETA: Garro Jenerala, 2
BILTEGIA: Markulete Industrialdea, 20. pabilioia
Tel.: 943 79 24 12 eta 943 79 97 95
ARRASATE



Salterain

PVC-zko ate eta leihoez gain:
mocketak,
zoru arinak,
kortxoak,
Louverdrape
kortinak,
Kortinoba, testila...

IKERKETA/ Adimendun etxebizitzaren aurkezpena

Adimendun etxebizitza aurkeztu dute Ikerlanek eta Enerlan Fundazioak

UBANE MADERA

Etorkizuneko etxebizitza aurkeztu dute Arabako Teknologia Gunean. Ikerlanek eta Enerlan Fundazioak egindako lankidetzaren emaitza da. Domolab izena ipini diote eta ordenagailuetan oinarritzen da bere funtzionamendua. Adimendun etxebizitza da.

Etorkizuneko etxebizitza zelakoa izan litekeen aurrez ikusi dute Arrasateko Ikerlan Teknologia Ikerketa Zentroak eta Enerlan Fundazioak.

Lan horren emaitza Domolab izeneko proiektua da: etxebizitza adimendu edo inteligentea.

Ordenagailuak izango dira etorkizuneko etxebizitzaren adimenaren oinarria, eta horregatik, azken hamar urteotan ikerketa ugari egin ditu alor horretan (domotikan) Ikerlanek. Horrekin batera, alor energetikoa ere aztertu du. Eta bi alor horietan egindako aurrerapenak batzen dira Domolab etxean.

Bi solairu ditu Domolab izeneko etxebizitzak, guztira, 183 metro koadro. Zazpi gunetan dago banatuta: sukaldea, jangela, logela, bi komun eta beste bi gela. Ohiko etxebizitza baten itxura du; baina itxura bakarrik, ohiko etxebizitzekin alderatuz prestakuntza ikusgarriak ditu-eta. Esaterako, etxeko aparatuak kanpotik kontrolatu daitezke, etxetresna elektrikoak kudeatzeko sistema



MARIA AGIRRE

Etxeko aparatuak kanpotik kontrola daitezke, eta teilatuan energia sortzeko eguzki plakak ditu.

domotikoa du. Etxebizitzaren teilatuan energia sortzeko eguzki plakak ditu, eta etxebizitzaren segurtasuna zaintzeko ere modu berezia dauka: sarrailak berak mikrotxipa dauka. Orain arte 97 milioi pezeta inbertitu dute Domo-

lab etxebizitzan.

Pedro Etxabek, Ikerlaneko Marketing zuzendariak, adierazi duenez, "Fagor hasi da domotikan horrelako gauza batzuk sartzten, baina, oraindik, gizartean masiboki sartzeko urte batzuk

pasatu beharko dira. Gainera, belaunaldi aldaketa gertatu behar dela uste dut. Urte batzuetatik gorako pertsonendako zaila izango da horrelako teknologiak erabiltzea, nahiz eta oso errazak izan".

Palestinako herriari elkartasuna adierazteko karabana

UBANE MADERA

Bihar, zapatua, Palestinaren aldeko Herri Karabana Arrasatera iritsiko da arratsaldeko 18:00etan. Iruñetik etorriko da, eta gero, domekan, Baionarako bidea hartuko dute. Autokarabana bat, fur-

gonetaren bat eta zenbait automobil etorriko dira. Hain justu, karabanaren erdia. Beste erdia Elorriora joango da.

ONGIETORRIA

Arrasaten ongietorria egingo die te palestinarrei, Seber Altube pla-

zan, 18:00etan esan bezala. Eta ekitaldian palestinarren egoeraren gaineko informazioa emango dute. Karabanaren helburua da Palestinako herriari elkartasuna adieraztea. Komite Internazionalistak-ek eta Askapena taldeak antolatu dute ekitaldia.

Erabilera Anitzeko Eraikina adjudikatu dute

UBANE MADERA

Uarkape Udal Pilotalekuaren ostean egingo duten Erabilera Anitzeko Eraikina egiteko lanak adjudikatu ditu Udalak, Amena-bar Eraikuntzak izeneko enpresari. Hamahiru hilabete ditu lanok egiteko, eta 270 milioi peze-

ta pasatxoko aurrekontua.

LASTER

Oraindik zehaztu barik dago noiz hasiko diren lanean, baina Hirigintza Saitetik adierazi digutenez, datozen hilabeteotan izango da. Hortaz, datorren urteko udazkenerako-edo bukatuko dituzte.

GORKA

ILEAPAINDEGIA

SOLARIUMA

LUZAPENAK

Ferrerias, 35 ARRASATE
Tel.: 943 77 13 78

ORDUTEGIA:
Astelehenetan itxita.
Asteartetik ostiralera:
09:30 - 20:00
Larunbatetan:
08:00 - 14:30

HIES BERRI

Tel.: 943 79 26 99

ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA

- ¥ Diagnostika-Orientazioa.
- ¥ Laguntza terapia.
- ¥ Mota guztietako eskola arazoak.
- ¥ Peritaje judizialak.
- ¥ Psikomotrizitatea eta logopedia.
- ¥ Tratu fisiko edo psikiko txarrak jasaten dituzten pertsonen laguntza psikologikoa.
- ¥ Ikasketa teknika eta ohiturak.

Ignazio Zuloaga kalea, 10 • Tel.: 943 79 48 77 • ARRASATE



KINTO BAZKARIA

Kinto bazkaria izan zuten 1914an jaiotakoek. Urtero moduan, Aita Julian Sagasta Erromatik etorri zen egun berezi hartaz goatzeko asmoz.

Bazkarira hurbildu zirenak kontu-kontari ibili ziren egun osoan. Urtean behin egiten dira horrelakoak, hortaz, aprobetxatu egin behar.



ISABELE PINACHOK 101 URTE

Egunero ez dira 101 urte egiten, eta Isabel Pinachok azaroak bostean beteko ditu. Valladoliden jaioa, dagoeneko 70 urte pasatu dira Arrasatera etorri zenetik. Urte askoan Industrial Mondragone-san lan egindakoa da Isabel, eta guri horrelako irribarrearekin jaso gintuen.



MENDIAN MODUAN, NON?

Argi dago mendian egoten garen moduan leku gutxitan egon gaitzkeela. Noizean behin ez bada ere, komenigarria izaten da asfaltoa alde batera uztea eta zuhaitz eta belar artean murgiltzea. Ikasgai hau aspaldi ikasi zuten Musakolako Herri Eskolako neska-mutikoen. Esan beharrik ez dago bikain pasatu zutela Gorozikako barnetegian.



IKASLEAK ZUAZAN

San Andresko eta Musakolako ikasleak uretan sartzeko gertu harrapatu zituzten argazki honetan. Neska-

mutikoen errekarara sartu aurretik derrigorrez jantzi behar izan zuten salbamendu-jaka, eta guztiak ere lasaiago aritu ziren

horrela. Argazkia Zuazan ateratakoa da. Urriaren hirutik bostera bitartean izan ziren han, eta primeran pasatu zuten!



LASAGABASTER



Arrasateko taldeko jokalariek hirugarren laurdenean erakutsi zuten zer egiteko gai diren.

SASKIBALOA

Kenci Arrasatek 72 eta 57 irabazi zion Deustu-Loiola taldeari

Iker Zubiriaren mutilek denboraldiko lehen garaipena eskuratu zuten zapatuan

XABIER URZELAI

Etxeko taldeak lau norgehiagoka behar izan ditu denboraldiko lehen garaipena eskuratzeko, baina zapatuan ikusitako jokoaren arabera, argi geratu da Iker Zubiriaren mutilek zorte apur bat behar zutela talde sendoa direla erakusteko.

Kenci Arrasate saskibaloitalko taldeak 72 eta 57 irabazi zion Deustu-Loiola talde bizkaitarrari. Hasiera batetik argi zegoen zeingehiagoka gogorra izango zela, talde bizkaitarrak ordurako bi garaipen eskuratuak zituen-eta.

Partiduko lehenengo minutuetan, kanpotarrak aurreratu ziren, eta lehen laurdena amaitu zenean, bilbotarrek zazpi puntuko aldea zeukaten. Bigarren laurdenean, gauzak ez ziren askorik aldatu. Iker Zubiriaren mutilek aurkariari neurria hartu barik jarraitzen zuten, eta atsedendaldira iritsi zirenean, markagailuak 27 eta 32 islatzen zuten.

Kenci Arrasateko jokalariek norgehiagoka maldan gora izan zuten lehen bi laurdenetan, baina hirugarren laurdenean, gauzak erabat aldatu ziren. Etxekoak hobeto defendatzen hasi ziren, eta kanpotarrek saskiratzerako orduan lehenengo laurdenetan baino arazo handiagoak izan zituzten. Defentsan hobetzeaz batera, etxeko jokalariek erasoan izugarri hobetu zuten, eta lehen zatian asmatu ez zituzten guztiak hirugarren laurdenean

saskiratu zituzten. Joko aldaketa horri esker, etxeko taldeak 21 eta 8ko partziala lortu zuten, eta azken laurdenean alde horri eustea gutxi zela pentsatuta, Iker Zubiriaren mutilek alde hori hantitzeko egin zuten lan. Erasoko jokaldi luzeekin eta azkeneko minutuetan jaurtiketetan lortutako puntuekin, Arrasatekoek hamabost puntuko aldea eskuratu zuten, eta horrela iritsi ziren azkenera.

TALDE-LAN TXUKUNA

Arrasateko taldeak lan bikaina egin zuen partiduko azken bi laurdenetan, eta partiduko azken txanpan erakutsitakoarekin nahikoa izan zuten partidua aurrera ateratzeko. Talde moduan lan bikaina egin bazuten ere, aipagarria da Inigo Ziarsolo eskolta bergararrak eginiko lana.

Partiduko azken bi laurdenetan taldea bikain gidatzeaz gain, baloiarekin sekulako abilezia erakutsi zuten, eta hori gutxi balitz, eginiko jaurtiketa gehienak saskiratu egin zituen. Jokalari bergararrak lehen denboraldia du Arrasateko taldean, eta aurreko denboraldian izandako hutsunak betetzera etorri zen Arrasatera. Argi dago Kenci Arrasatek fitxaketa bikaina egin duela, besteak beste, 26 puntu lortu zituen eta zapatuan jokatuako partiduan.

Hala ere, ez zen izan bikain ibili zen jokalaria bakarra: esaterako, Ander Mallabiabarrenak hamalau puntu eskuratu zituen eta Jagoba Gamarrak hamahiru. Argi dago horrelako emaitza bat eskuratzeko jokalaririk guztiak ondo ibili zirela, eta bakar batek ezin duela guztiak egin.

Laugarrenean aidanez

Kenci Arrasate taldeak lau partidua behar izan ditu lehen garaipena eskuratzeko, baina irabazi dutenean ez dira motz geratu, ez joko aldetik ezta puntuen aldeari dagokionez ere. Iker Zubiriaren taldeak denboraldi hasiera gogorra izan du, eta arerio zailak izateaz gain, lesioek ez dute taldea errespetatu.

Hainbat jokalarik min hartuta badaude ere, daudenek, bederatzik jokalarik baino ez, argi erakutsi dute partidua aurrera ateratzeko gai direla. Oraingo asteburuan, etxeko taldeak Urdanetaren aurka jokatu du Iturripen. Partidua zapatuan izango da, arratsaldeko seietatik aurrera. Seguru taldeak publikoaren berotasuna asko eskertuko lukeela.

FUTBOLA

Mondrak bihar jokatuko du Atxabalpen Bergara taldearen kontra

Arrasateko futbol talde nagusiak bi eta huts galdu zuen pasa den asteburuan Pedrusko talde elgoibartarraren kontra. Arrasateko taldeak lau norgehiagoka jokatu ditu, eta oraindik ez dute punturik eskuratu; hortaz, egoera horrek ahalik eta lasterren amaitu beharko du.

Oraingo asteburuan, Mondrak Bergararen bisita izango du. Partidua bihar jokatuko da Atxabalpen, arratsaldeko lau eta erdietatik aurrera. Soberan dago esatea irabazi egin behar dela.

KIROLDEGIA

Musakolako kiroldegia gaur inauguratu dute, eta sarrera doan izango da asteburuan

Musakolako Kiroldegia gaur inauguratu dute, eta oraingo asteburuan, herritarrek doan sartzeko aukera izango dute. Eraberritze lanak, besteak beste, kantxan, aldageletan eta saunan egin dituzte.

Hainbat arrazoi direla medio, kiroldegiko lanak asko atzeratu dira. Garbitzaileen greba zela-eta, lanak asko atzeratu ziren, baina hori ez da kiroldegiaren esku egon. Oraingo asteburuan bisi-tan joateko gonbidapena egiten dizue Musakolako Kiroldegiak.

ATLETISMOA

Behobia-Donostia maratoi erdia Arrasateko preso baten izenean korritzeko deialdia

Aurten ere, arrasatear asko hurbilduko da Donostiaraino, Behobia-Donostia maratoi erdian parte hartzeko. Pasa den urtean, ehun eta zazpi arrasatearrek eman zuten izena, eta aurten ez dira gutxiago izango.

Dagoeneko zabaldu dute izena emateko epea, eta Amnistiaren Aldeko Batzordeak deialdi berezia egin du: proba horretako hogeik kilometroak Arrasateko preso baten izenean korritzea. Horretarako, hilaren 24 a baino lehen eman behar da izena Irati tabernan.

GOLFA

Mankomunitateko Kirol zerbitzuek golf ikastaroak antolatu dituzte

Mankomunitateko Kirol zerbitzuek golf ikastaroak antolatu dituzte; hastapen eta hobekuntza ikastaroak izango dira. Golfeko ikasteko eta jokatzeko hobetzeko eskola hauek urrian eta azaroan egingo dira Urturiko golf eskolan.

Eskolen ordutegia honakoa da: goizetan, hamaiketatik ordu bata arte, eta arratsaldetan hiruretatik seiak arte. Debagoieneko Kirol zerbitzuetako abonatuak zortzi mila pezeta ordaindu beharko dituzte, eta gainerakoek hamar mila pezeta.

ESKUBALOA

Senior mailako bigarren taldeak Musakolan jokatuko du Loiola taldearen kontra

Aurreko asteburuan, senior mailako bi taldeek emaitza txarrak izan zituzten, eta oraingo asteburuan gauzak hobeto egiteko asmoz kantxaratuko dira. Jesus Mari Herrero gidatzen duen taldeak zapatuan jokatuko du, arratsaldeko bostetan, Musakolako Kiroldegian.

Arrasate-Almenek, aldiz, kanpoan jokatuko du oraingo asteburuko partidua. Bernardo Balerdiren mutilek Pasaiaraino joan beharko dira partidua jokatzera, eta aurreko asteburuko porrota ahazteko asmoz abiatuko dira haiek ere.

FUTBOLA

Arrasateko emakumezko taldeak sei eta huts irabazi zuen Aloña Mendiren kontra

Pasa den asteburuan, Arrasateko futbol taldeko neskek sekulako jipoia eman zieten txantxikuarren, eta partidua amaitu zenerako arrasatearrek sei aldiz zulatua zeukaten oñatiarren atea.

Oraingo asteburuan, intentzio berberarekin joango dira neskek, eta partidua kanpoan jokatzeko badute ere, aurkariak lanak izango ditu Arrasateko neskek geldiarazteko.

Partidua Almen taldearen kontra jokatuko dute. Norgehiagoka domekan izango da, Almen taldearen zelaian.

FOTOKIROLA



Gazte mailako taldeak irabazi egin zuen Zumaiakoren aurka

David Zaitegik zuzentzen duen taldeak hiru eta huts irabazi zuen egubakoitzean Zumaiakoren kontra jokatutako partidua. Arrasateko golegileak Aitor Lezamiz, Kepa Etxebarria eta Erik izan ziren, eta partidua erraz irabazi bazuten ere, entrenatzailearen esanetan, huts batzuk zuzendu beharko dituzte, beste talde batzuek ez dute eta hurrengo hutsik barkatzen.

Bigarren mailako jubenetako talde honek denboraldi hasiera bikaina egin du, orain arte lau partidu jokatu eta bakarrik galdu dute eta. Horrez gain, David Zaitegiren esanetan, orain arte izan dituen taldeen artean, hauxe da errazago motibatzen dena. Oraingo asteburuan, etxeko taldea Eibarrera joango da, Alegi taldearen kontra jokatuzera. /XABIER URZELAI

ERRUGBIA

Arrasateko Errugbi Taldeak bihar hasiko du denboraldia Durangoren kontra

Arrasateko Errugbi Taldeak hainbat arazo izan ditu aurten senior mailako taldea osatzeko, baina azkenean lortu du taldea eratzea. Beste gauza batzuen artean, aurten, gazte mailakoak beste urte bat gehiago arituko dira gazte mailan, eta horregatik, jokalariek ezin izan dute goiko taldera igo.

Kontu horiei guztiei aurre eginez, aurten ere, senior mailako taldea izango dugu, eta zapatuan, 16:00etatik aurrera, denboraldiko lehen partidua jokatuko du Durangoren aurka.

SASKIBALOA

Junior mailako emakumeek 8 eta 56 galdu zuten Alde Zaharraren kontra

Junior mailako emakumezko saskibaloitako taldeak jipoi galanta jaso zuten pasa den asteburuan. Jose Mari Sánchezek zuzentzen duen taldeak 8 eta 56 galdu zuten Alde Zaharraren kontra.


Arrasateko taldeek ezin izan zuten ezer egin eurak baino nagusiagoak ziren talde batén kontra, izan ere, Arrasateko taldean oso jokalariek gazteak daude. Maila horretan jokatzen duten jokalariek baino bi urte gutxiago dituzte etxeko jokalariek askok, eta horrelako mailetan asko nabaritzen da adina.

ZALDIBAR

Zaldibarko areto futbol txapelketa oraingo asteburuan hasiko da

Bihar, goizeko bederatzietatik aurrera, Zaldibarko txapelketako lehenengo partiduak jokatuko dira. Lehenengo partidua pasa den txapelketako finalean izan genituen bi taldeek jokatuko dute, Rayo Aldeanok eta Chapime Dribling-ek, hain zuzen ere.

Aurten, 31 taldek eman dute izena txapelketan parte hartzeko, aurreko urtean baino sei talde gutxiagok, baina, hala ere, futbol ona eta emozioa izango dira nagusi. Logotipo lehiaketa Gorcka Zubizarretak irabazi du.



- ¥ Garajeko atek
- ¥ Burdinazko pertsianak
- ¥ Automatismoak
- ¥ Urrutiko agente tresna homologatuak eta hauen mota guztietako kopiak
- ¥ Oinezkoen ateentzako sistema automatikoak
- ¥ Konponketak

Zure garajeko urrutirako agente tresnaren originalak eta homologatuak, Jubarren eskuragai.



Kataide industrialdea 18 ¥ Tf.: 943 79 10 20 ¥ Faxa: 943 79 08 17
110 Postakutxa ¥ ARRASATE

JUBAR[®]
ATEAK, S.L.

ELKARRIZKETA

DAVID ZAITEGI/GAZTE MAILAKO FUTBOL ENTRENATZAILEA

"Garrantzitsuena da gazteekin izaten duzun hartu-eman"

XABIER URZELAI

David Zaitegi gazte mailako futbol entrenatzailea da, eta 30 urte besterik ez baditu ere, dagoeneko sei urte daramatza entrenatzaile lanetan. Futbolarekin harreman zuzena du, zale-tasun moduan ez bada ere.

Zaldibarko txapelketa ala zure mutilen partiduak bizi dituzu gehien?

Zaldibarko txapelketa asko gustatzen zait, baina antzik ere ez dauka horrek eta neure mutikoen partiduek. Biak dira zale-tasunak, baina bakoitzak bere garrantzia du, eta argi dago neurretako, askogatik, mutil hauek garrantzitsuagoak direla.

Egubakoitzean, hiru eta huts irabazi zenuten. Zer-nolako denboraldi hasiera izan duzue?

Nire ustez, nahiko hasiera polita izan da. Lau partidutatik hiru irabazi ditugu, eta bat galdu. Horrez gain, kontuan izaten badugu denboraldia hasi baino aste eta erdi lehenago hartu genuela taldea, hasiera polita izan dugula esango nuke.

Zein mailatan da zailena entrenatzaile lanak egitea?

Pasa den urtean, erregional mailan ibili nintzen bigarren entrenatzaile moduan, eta argi daukat gero eta maila altuagoan egon, orduan eta zailagoa dela entrenatzaile moduan jardutea. Goiko taldean zaudenean emaitza batzuk eskatzen dizkizute, eta batez ere, horregatik da gaitzena.

Zer dauka entrenatzaile izateak?

Ez da bakarrik futbola gustatzea edo ez gustatzea. Harrigarria



XABIER URZELAI

da zenbat jende ezagutzen duzun, eta horrez gain, niretako garrantzitsuena da gazteekin izaten duzun tratua eta harremana. Lehen entrenatutako gazteekin sekulako harremana daukat, nahiz eta entrenatzaile lanak aspaldi bukatu. Horrek asko balio du.

Zer gomendatuko zenioke Raul Leibari?

Rauli ez nioke ezer gomendatuko. Harekin izan nintzenean, ia gauza gehienetan ados geunden, eta sekulako entrenatzailea da. Hari baino, jokalariei emango nieke gomendioa. Jartzen dutena baino apur bat gehiago jarriz gero, gauzak hobeto irtengo dira. Beste ezergatik ez bada ere, daukaten entrenatzaileagatik egin dezatela.

Pilota partiduak jokatuko dira gaur Uarkapen

XABIER URZELAI

Gaur, egubakoitza, Gipuzkoako Txapelketako pilota partiduak jokatuko dira Uarkapeko pilotalekuan. Arratsaldeko zazpjetatik aurrera, Arrasateko pilotariak Aretxabaletakoak izango dituzte aurrez aurre.

Pasa den asteburuan, Arrasateko pilotariak ez ziren fin aritu, eta bakarrik gazte mailako bikoteak irabazi zuen. Agirrek eta Uribarrenek 22 eta 9 irabazi zieten tolosarrei, baina garaipen bakarra izan zen. Senior mailako bi bikoteek Amezketeta eta Elgetaren kontra jokatu zuten: Zugastik eta Lazkanok 22 eta 15 galdu zuten amezketarren aurka; seniorreko beste bikoteak, Errastik eta Zuazubiskarrek osatzen dutenak, 22 eta 9 galdu zuten elgetarren aurka.

Azkenik, gazte mailako beste bikoteak, Zuazuak eta Arroyabek, 22 eta 7 galdu zuten Hernaniren

kontra. Hortaz, ezin esan asteburu borobila izan zutenik.

GAUR, ARETXABALETAREN KONTRA

Etxeko pilotariak gaur jokatuko dituzte oraingo asteburuako partiduak. 19:00etatik aurrera, bi partidu izango dira Uarkapeko pilotalekuan. Lehenengoan, Zuazua eta Arroyabe arituko dira Aretxabaletako bikotearen kontra, eta ondoren, Osinaga eta Zuazubiskar lehiatuko dira ondoko herriko pilotarien aurka.

Beste bi partiduak Aretxabaletan jokatuko dituzte, horiek ere gaur. Gaueko hamarretatik aurrera, gazte mailan jokatzen duten Agirre eta Uribarren arituko dira atxabaltarren kontra. Gero, seniorren partidua izango da. Zugastik eta Lazkanok ere bertako pilotarien kontra jokatu beharko dute. Herriko pilotariak hainbat hilabete igaro dituzte pilotan jokatu gabe, eta hori nabaritu egiten da. Ea laster hartzen dioten neurria txapelketari.

Gaur, Anbotoste tabernak antolatutako Mus Txapelketa

XABIER URZELAI

Gaur, egubakoitza, Anbotoste tabernako lehen mus txapelketa jokatuko da. Izena ematea gaueko 10:15etik 10:30etara egin beharko da, eta bost mila pezeta ordaindu beharko dira parte hartzeko.

Gaur gauean, giro aparta izango da Erguin auzoko Anbotoste tabernan; izan ere, taberna horretan jokatuko den lehen mus txapelketak bizitasuna emango dio egubakoitzari. Txapelketa gaueko hamaikak aldera hasiko da, gutxi gorabehera, aurretik izena

emateko ordu laurden izango da-eta. Txapelketan parte hartzeko, bikoteko bost mila pezeta ordaindu beharko dira.

SARI ERAKARGARRIAK

Barkero tabernariaren esanetan, txapeldunak poltsikoa bete-beteta eramango du, izenematean dirua oso-osorik irabazleendako izango da-eta. Tabernariak uste du ehun mila pezeta baino gehiago izango direla.

Hori gutxi balitz, trofeo, diploma eta edariak izango dira irabazleendako. Aukera paregabea musalditxoak jokatu eta, zergatik ez, poltsikoak betetzeko.

**URONDO**

Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismok

- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76

Edertasunaren Gida

CARMEN

Ile apaindegia Solariuma

Ferrerias, 50
ARRASATE
Tel.: 943 79 03 63

Jose Antonio
GIZONEZKOEN
ILE APAINDEGIA

Otalora lizentziatua, 22-behea
ARRASATE
Tel.: 943 79 42 10

SUSI

ILE APAINDEGIA

Garibai, 3-etxabea
Tel.: 943 79 50 27

ILEA

Ferrerias, 14. 943 79 87 62

AUSART



Ile apaindegi mistoa
Estetika zentroa - Txaro Camzo

Iturriotz kalea, 24. Tel.: 943 77 30 60 / 943 77 21 58

JADE

ILE APAINDEGIA

Maialako Errabala, 21-B • ARRASATE • Tel.: 943 77 16 31

Lore

Lurrindegia eta estetika zentrua

KORA Ñ NEAL Ayer HR CLARINS BIOTHERM VALMONT



Olarre, 10 • ARRASATE • Tel.: 943 79 52 50

ML

ILE APAINDEGIA

Alfonso X jakintsua, 1
behea
(Grupo San Juan)
Tel.: 943 79 79 65

Miren Garai

ESTETIKA ZENTRUA

LODITASUNA ETA BARIZEAK

- Zimurretako CO² lehenengo laserra (Barra-kodea)
- Ezpainen handitzea
- Liposukzioa edo lipoeskultura
- Bularren txikitzea eta handitzea

Aguinaga Doktorea (1800)

- Aurpegiko orbanak
- Gorputzerako LIPOFIT TAC tratamenduak
- Indarberritze tratamenduak
- Depilazioa argizari hotzaz eta beroaz

- Depilazio elektrikoa
- Aurpegiaren garbiketa
- Makilajea
- Solariuma

LASER BIDEZKO DEPILAZIOA MEDIKUAREKIN

Zarugaite 23. 2. ezk. Tel.: 943 79 96 90

Hilero aterako dugu
Edertasun Gida.
Zure zerbitzuak
iragarri nahi
izanez gero,
deitu
943 71 23 9
telefonora

Euskal poesien, musikaren eta irudien laguntzarekin, nazioartekotasunaren eta gutasunaren gaineko gogoeta egingo da

'Ibilarixanak', bidaiaren gaineko ikus-entzuteko saioa, izango da Monterronen

LEIRE KORTABARRIA

Nazioartekotasuna, mugez bestalde joatea... aitzakia hartuta, gu geu zein garen galdetzea helburu duen ikuskizun bat etorriko da laster Arrasatera. *Ibilarixanak* du izena eta Gaztelupeko Hotsak diskoetxe plaentziarrak bultzatutako ekimena da.

Datorren astean, urriaren 24an, hain zuzen, ekitaldi berezia ikusi eta entzuteko aukera izango dugu, udal liburutegiak antolatuta: *Ibilarixanak* izeneko poesia, musika eta bideo ikuskaria. Monterrongo hitzaldi aretoan izango da emanaldia, arratsaldeko 19:00etan.

Gaztelupeko Hotsak diskoeak aurkeztu eta bultzatutako ekintza da *Ibilarixanak*. Izenak definitzen duenez, leku batetik bestera joan eta bidai horretan zeinek bere burua aurkitzearen berri emango digu ikuskizunak. Eta ibili eta ibili gerturatuko dira gurera ekintza horretako sei parte hartzaileak: Jose Luis Otamendi eta Iñigo Aranbarri idazleak; Karlos Arantzezi musikaria; Jon Ander eta Imanol Ubeda anaiak, Bide Ertzean taldeko partaideak; eta Xabi Labaien IKB bideogile taldeko arduraduna.

Ibilarixanak ikus-entzuteko saioak otsailean hasi zuen ibilbidea, Gasteizen. Segituan pasatu zen Euskal Herriko beste hiri eta herri batzuetara. Arrakasta horrek Arrasateraino ekarriko du.

XX. MENDEKO OLERKIAK EZAGUTARAZI
"Ibilarixanak ibilbide proposamena da, existitzen ez den herri bat definitzen saiatzeko, existitzen ez diren herriak badirela aldarrikatzeko"; horrela definitzen du Gaztelupeko Hotsak diskoeak ekimena. Baina, bestalde, "XX. mendeko euskal poesien ale batzuk jendeari emateko aitzakia da, kulturari eta distantziari buruzko teoria zalantzagarririk bat finkatzeko ahalegina", gaineratzen dute.

Asmo horiek bidaiaren inguruko gogoeta dute emaitza. XX. mendeko euskal poesia 13 eredu aukeratu dituzte Jose Luis Otamendik eta Iñigo Aranbarrik, eta horiek errezitatuko dituzte. Bitartean, taldeko hiru musikariek doinuak ipiniko dizkiete hitzoi, gitarraren, baxuaren eta bateriaren laguntzarekin. Bestalde, Orixeren eta Koldo Izagirren poemen musikazko bertsioa eskainiko dute. Hori guztia are dotoreago janzteko, hainbat irudi proiektatuko dituzte; Xabi Labaien arduratuko da horretaz.

UNIBERTSALASUNA ETA GUTASUNA

Bidaia hiru modu desberdin baina betegarriz aurkezten da, hor-



GAZTELUPEKO HOTSAK

Bi idazlek, hiru musikariek eta irudi teknikari batek ahalbidetzen dute ikus-entzuteko saioa.

*"XX. mendeko
poesiaren ale batzuk
jendeari emateko
aitzakia da
Ibilarixanak"*

taz; baina, hori bai, bidaia modu sinbolikoan hartzen da. Sinbolo horren bitartez, honako gaien inguruko gogoetak eta galderak mahairatuko dituzte taldekideek: joatea zer den, bidean zer uzten eta zer hartzen den, erbeste modu

*Bidaia hiru modu
betegarriz aurkezten
da, eta gaia
modu sinbolikoan
hartzen da*

desberdinak, bidearen beraren esanahia, aberria, sorterrria... Gogoeta unibertsal horiekin batera, Euskal Herriari dagozkion beste batzuk planteatuko dituzte. Bultzatzaileek diotenez, "euskaraz mintzo den herri baten tes-

*Gogoeta
unibertsalak eta
Euskal Herriari
dagozkionak
planteatzen dira*

tigantza da, askotariko jendeak osatutako herria". Izan ere, honela dio Jose Luis Otamendik: "Barrualdearen ispilu da kanpoko, eta nazioartekotasuna, gu geu izateko modurik eraginkorrena".

Hamahiru idazleren hamabi poema

Ordubete inguruko saioa da *Ibilarixanak*. Ordubete horretan, gitarra, baxua eta bateriaren laguntzarekin, joan den mendeko punta-puntako hamabi olerkariren hamahiru lan entzuteko aukera izango da. Tartean, ekimenean errezitatzaile moduan parte hartzen duten bi idazleen poesia lan bana izango dira.

Hona hemen zerrenda osoa: *Amate baten itzalean* (Orixe); *Bide ertzeko belarra* (Nemesio Etxaniz); *Zorrotzako portuan aldarrika* (Gabriel Aresti); *Bilbaoko kaleak* (G. Aresti); *Manifestu atzeratua* (Joxe Azurmendi); *Portu koplak* (Koldo Izagirre); *Harriak eta herriak* (Joseba Sarrionandia); *Desertuetan esperatzen* (Itxaro Borda); *Zu Ipar Irlandan eta ni Hego Euskal Herrian* (Rikardo Arregi Diaz de Heredia); *Aspaldi ikasitako hitzekin...* (Jose Luis Otamendi); *Izurdeen dantza...* (Miren Agur Meabe); *Nik egin nezake*

kantu ilun bat... (Juanjo Olasagarre); eta *Oroitharriak* (Iñigo Aranbarri).

Horrez gain, kontuan hartu behar da Orixeren *Amate* eta Izagirren *Portu Koplak* musikatu egin dituztela, eta horrela eskainiko dituztela datorren eguaztenean Monterronen.

Hortaz, ikuskizunak Euskal Herriko iragan gertuko literatura emariko eredu garrantzitsuei erreferentzia egiten die. Olerkiez eurez gain, ikuskizunaren izena euskal literaturagile handi baten lan baten izenburutik hartu dute: Toribio Etxebarria idazle eibartarrak 1961ean erbestean idatzi zuen liburu batena. "*Ibilarixanak* liburu eder baten izena da, eta izenaz gain, izanetik ere zerbait ostu diogun susmo harroa daukagu", onartzen dute Gaztelupeko Hotsak diskoetxe arduradunek, ekimen horren bultzatzaile eta antolatzaileak.

KULTURAPILULAK

Kalean da 'Putz' aldizkariaren zenbaki berria

Kalean da *Putz* bihilabetekariaren 11. zenbakia, arrasatear eta aretxabaletar talde baten ekimenez. Oraingoan, besteak beste, Osama Bin Laden-en gaineko kontuak eta Asier Serrano idazlearekin elkarrizketa dakartza.

Argazki lehiaketako epaia gaur jakinaraziko dute

Gaur, urriak 19, kaleratuko da Udalak eta ASA taldeak antolatutako gazteendako argazkilaritza lehiaketako epaia. Horrekin batera, aurtengo edizioan jaso diren lan guztien erakusketa zabalduko dute, Monterronen. Urriaren 31ra arte izango dira ikusgai lanok. *Gazteen ekimenak* zen aurtengo gaia.

Teresa Díazen erakusketa Harresi aretoan

Urriaren 28ra arte izango da aukera Teresa Díaz margolari oñatiarraren erakusketa ikusteko, Iturriotz kaleko Harresin. 18:00etatik 20:00etara dago zabalik; asteburuetan, ordutegi horrez gain, 12:00etatik 14:00etara. Pastel teknikarekin egindako margolanak erakutsi ditu Teresa Díazek.

Biodantza eta argazkigintza tailerrak, aukeran

Zabalik daude biodantza eta argazkigintza ikastaroetan izena emateko epeak. Gazte Sailak antolatutako ikastaro horiek biak azaro hasieran hasiko dira, abendura bitartean. Lehenengorako matrakulak 4.000 pezeta balio du; bigarrenarenak, 5.000. Izena emateko edo argibideetarako, deitu 943770065 telefonora.

Hiru herritarrek parte hartu zuten Artisaualdian

Hiru arrasatearrek parte hartu zuten Gipuzkoako Artisauen Elkarteak (Gabilta) antolatu duen Artisaualdia azokan. Ordizian izan zen, joan den asteburuan. Jesus Gruzeta bitxigileak, Felix Barcina ezpel langileak eta Idoia Ibañez tapizgile eta ehozirlan egileak mahai bana izan dute Ordizian, euren lanak erakutsi eta saltzeko.



GAZTELUPEKO HOTSAK

"Borobilak eta poetikoak", horrela deskribatu dituzte adituek Untzetaren abestiak.

TOPAGUNEAK ANTOLATUTAKO KULTUR ERROTAREN BARNEKO SAIOA IZANGO DA

Markos Untzeta & Buharme Famauak taldea Jai Zale tabernan

LEIRE KORTABARRIA

Popa, rocka, bluesa eta folka koktel-ontzian sartu, Bob Dylan, Neil Young, Bruce Springsteen edo Van Morrison-en ukitu batzuk gehitu... eta Markos Untzeta & Buharme Famauak taldea irtengo da.

Musika nahasketa hori gustuko duenak izango du, bai, ondo pasatzeko aukera datorren egubakoitzean, urriaren 26an. Markos Untzeta & Buharme Famauak boskoteak kontzertua emango du egun horretan Mondragoen. Olarte kaleko Jai Zale tabernan izan-

go da emanaldia, 23:00etan.

INGALATERRATIK EUSKAL HERRIRA

Eibartarra, autodidakta, musikazalea, musikagilea, konpositorea... Horrela deskribatzen du bere burua Markos Untzetak.

Untzetaren ibilbide publikoa duela gutxikoa da, nahiz eta denbora dezente ibili den kantuan. Ingalaterran igo zen lehenengo aldiz agertoki batera, eta leku batetik bestera eraman zuen bere musika, Londresko eta herri ingelesaletako pubetan. Bertsiok eta ingelesez sortutako kantuak abesten zituen.

Euskal Herrira bueltatzera-

koan, euskaraz idazten hasi zen Markos Untzeta. Kritikoen esanetan, "borobilak eta poetikoak" dira haren abestiak.

Hasieran, bakarlarri gisa jardun zuen; baina gaur egun, talde sendoa osatzen du Jon Urrutia, Borja Berrueta, Dani Merino eta Gorka Eskoriatza musikariek. Datorren urtean, *Gaua Basamortuan* estreinaldi diskoa kaleratuko dute.

Taldearen emanaldia Topaguneak bultzatutako Kultur Errota egitasmoaren barruan dago antolatuta. Formatu txikiko zuzeneko saioak eskaintzen dira Kultur Errotan.

Kantu harmoniko tailerra, ahotsaren onurak ikasteko

LEIRE KORTABARRIA

Iñaki Bruña musikari arrasatearrak eta Jesus Tuti Elizegi terapeuta eta ahots aditu donostiarrak kantu harmoniko ikastaroa antolatu dute, azaroaren 5etik abenduaren 3ra arte.

Antzinatek dator kantu harmonikoaren artea; Mongolian, Tibeten eta Ipar Amerikako herri indiarretan landu izan da, besteak beste. Leku horietako teknikak irakatsiko ditu Jesus Elizegi adituak. Baina zer da kantu harmonikoa?

"Aldi berean bi ahots aditzera ematen digun kantua da", diosku Elizegik. "Alde batetik, oinarritzko soinu bat sortzen dugu; bestetik, soinu jarraitua edo melodia. Ahotsa belarrien arteko erdiko puntuan -hots, barne entzumean- sortzen dugunean irteten den soinua da kantu harmonikoa".

Antzinateko teknika horrek efektu onuragarri asko ditu: "Kantu harmonikoaren bidez, gure benetako ahotsa aurki dezakegu. Bestalde, kontzentrazioa hobetzen da, oreka psikologiko sendoagoa lortzen da. Horrez gain, meditazio eta otoitz modua da, eta norbera aldatzeko teknika indartsua", azaltzen du irakasle donostiarrak. "Berez, ez ditu gaixotasunak osatzen; baina osasun fisikoa, psikikoa eta espirituala nabarmen hobetzen ditu", gaineratzen du.

OM SOINUTIK ABIATU

Bi teknika nagusi erabiliko dira ikastaroan. Alde batetik, "om" silaba modu egokian errepikatzeak zer mesede dakarren irakatsiko du Jesus Elizegik: "Jatorritzko soinu horrek lagunduko du zeinek bere benetako ahotsa errekonozitzen", dio. Bokalak ere erabiliko dituzte, eta modu egokian esanda, gure gain ditugun tentsioak aldentzen ikasiko da.

Literatura solasaldiak mistoak izango dira aurten

LEIRE KORTABARRIA

Azken urteotan moduan, literatura solasaldiak antolatu dituzte Udaleko Emakume Sailak eta Udal Liburutegiak. Aurten, berritasun nagusia da emakumeondako ez ezik, gizonendako ere izango dela.

"2001-2002 ikasturte honetan, solasaldiak talde mistoari eskaintzea pentsatu dugu, aurreko urtean zenbait gizonek interesa erakutsi zutelako *Emakumeak eta Literatura* mintegian parte hartzeko", diote Emakume Saileko arduradunek.

Hori baina, ez da aurtengo deialdiko berritasun bakarra; izan ere, lehenengo aldiz bi talde izango dira, bata euskarazkoa eta bestea gaztelaniazkoa. Itziar Zubizarretak dinamizatuko du lehenengoa eta Ana Arregik bigarrena.

URRIAREN 26RA ARTE

Literatura jardunaldiak azaroan hasi eta ekainera bitartean izango dira. Izena emateko epea zabalik dago dagoeneko, eta urriaren 26an bukatuko da. Matrikula doan izango da. Parte hartzen duen talde bakoitzak bi orduko saio bana izango du hilean.



BADATOR GIDA 2002

GIDA 2002. Aukera ematen dizu Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza, Aramaio eta Leintz Gatzagako merkatarien helbide eta telefono guztiak modu errazean aurkitzeko.

Goienaren gidan azaldu edo berri gehiago jaso gura baduzu, deitu 943 71 23 91 telefono zenbakira.

BEHEKOTABERNATIK

Eloi Marteatxe

KIMETZ TABERNAKUE

XABIER URZELAI

Eloi kamarerue da, eta herri askotan ibilli da, gaiñera, lan horretan. Segiduen emun dust baiezku, eta hori asko esker-tzen da. Akats bat dauko: Athleticzale amorratue da.

Amets bat.

Aktualidade haundikue. Gerrie buketie.

Amets txar bat.

Gerrie bera.

Egin dozun azken biak.

Oviedora, Athletic ikustera.

Txartel horixe, zeñei?

Bush-ei.

Eta gorrixe?

Hori be Bush-ei.

Film bat? Liburu bat? Disko bat?

La naranja mecánica / El nombre de la rosa / Doctor Deseo.

Drogak legalizauko zittukie?

Bai, jakiña.

Eta prostituziñue?

Bai.

Tabernetako txikiteue ala diskotekak?

Gauza bakotxa bere momentuen.

Ze gustetan jatzu Mondragoetik?

Gauza asko, baiñe, batez be, Santa Barbara.

Alkate izengo bazitze, ze hobetuko zeunke?

Etxebizitzen arazue. Eta ahalginduko nitzake gutxien daukonari gehixago emuten.

Eta lehendakari izengo bazitze, ze hobetuko zeunke?

Aurrekuez batera, Madrillei presiño haundixago egingo neuskio, geure herrixen eskubidiek errespetau daixen.

Ze gehitu leikixo ARRASATE PRESSEi? Eta ze kendu leikixo?

Kirol gehixago jarriko neuke. Txutxumutxuak gustetan jat. Ez neuke ezer kenduko.

Ezagutu dozun pertsona interesante bat.

Neure lagunek.

Eta ezagutu nahiko zeunkeena?



X.U.

"Penak kentzeko, bixamona haundixe ixten dauen zeozer da onena. Anisa, adibidez"

Maribel Verdú.
Tranpan ibilttekotan norbaittekin, zeñekin?
Gustetan jaten bateron batekin.
Telebisiñoko programa bat? Eta irratikue?
Zine kontuko programak. Irratixe asko entzuten dot, *Egunon Bizkaia*, adibidez
Zertan gastauko zeunke dirue?
Jatetxietan, eta Athletic hara eta hona jarraiketean.
Hondartza ala mendixe?
Mendixe. Hondartzan bada, txiringituen.
Tabernari izengo ez bazitze, ze izengo zitzake?
Irrati esatarixe.

"Tabernari ona izeteko, pazientzia haundixe eta psikologia apur bat biher die"

Aukeran, zapatu gabien lan egin edo domeka goxien tabernie zabaldu?
Domeka goxien zabalketie.
Zein da exigentiagoe, gaztie edo edadetue?
Seguruenik, pertsona nagusi-xe.
Eta adar jotzaile haundixago?
Neurekin, danak, Athleticzalie naz-eta.
Lagun on bati ze trago atarako zeuskio?
Ze ordu dan arabera...
Eta bizkarra emun dotsun lagun bati?
Horri kalera atarako neuskio trague, azkar asko gaiñera.

NIREBIDAIAHURA/ Garikoitz Kortazar

NEPALERA / 1998ko abendutik 1999ko urtarrilera

Garikoitz Kortazarrek betidanik izan du bidaia-tzeko grina, eta zaletasun hori besteoi ere barneratu gura izan digu telebistan eta irratan bidaiein inguruko saioak aurkeztuta.

Garikoitz Kortazarrek hainbat bidaia egin ditu, baina esperientzia politenak Nepalen bizi izan zituen. Hasi-
ra batean, bakarrik joan zen, baina geroago joango ziren lagun batzuekin elkartzeko asmoz. Bidaiaren helburu nagusia zen trekking eginez inguru haiek bisitatzea, eta halaxe egin zuen: "Hara joan nintzenez, banekien nora eta norengana jo behar nuen. Kontua da trekkinga egitera joaten diren batzuk diru mordo gas-tatzen dute zamaketariekin, eta eurak eroso asko joaten dira. Nik beste intentzio bat neraman, eta gidari bakar batekin ibili nintzen hara eta hona".

Lehenengo trekkinga Lang-tanen egin zuen, eta gero, lagun batzuk joan zirenez, berriz ere Katmandura bueltatu zen. "Lagunek arazoak izan zituzten bidaiarekin, eta maletak galdu egin zituzten. Katmandun material apur bat erosi, beste apur bat alokatu eta halaxe moldatu ginen". Lagunekin Khumbuko trekkinga egin zuen, eta Garikoitzek dio esperientzia ahaztezina izan zela. "Hilabete batzuk lehenago, Marokon izan nintzen, eta horrek asko lagundu zidan, izan ere, Nepalen miseria handia dago eta horrelako gauzak ikustera ohitu egin behar zara".

Trekking hauek gogorrak izaten dira, egunean zazpi edo zortzi orduz ibiltzen ziren, eta bost mila metro oinez egitea oso nekagarria da. "Material guztia soinean gerraman, eta ibar batetik bestera jotzen genuen. Uneoro begibistan genituen zortzi milakoak, baina hori beste kontu bat da, eliteko kirola".



"Mendi garai haiek behetik ikustearekin nahikoa neukan"

"Hasierako egunak oso gogorrak izan ziren: ezin ezer jan..."

XABIER URZELAI



Nepalen gauza politak bezain gogorrak ikus daitezke.



KONTRATAK
IRYROK S.L.
ERAIKUNTZAK

Meatzerreka, 5 bis • Apdo. 246
Tel.: 943 77 09 92 Faxes: 943 - 79 78 14
ARRASATE

S. CARRASCAL S.L.

Guk egindakoak:

- Sukalde altzariak
- Armairu enpotratuak
- Trastelekurako armairuak

Fabrikan erakusketa

Gipuzkoa etorbidea, 6 -1.a • Tel/Faxa: 943 79 01 82



Larringan

GIDARI ESKOLA

Garibai, 5
Tel.: 943 792296
ARRASATE

Basabe ind. FO-7
Tel.: 943 796450
ARETXABAETA

ZAHARREN ETXETIK



Francisca Sánchez Iturbide egoitzan bizi da, Juan semearekin batera. Irailean, 101 urte egin zituen.

LEIRE KORTABARRIA

Datorren hilean, lau arrasatearrek 101 urte izango dituzte

LEIRE KORTABARRIA

Ez dira hainbeste urte pasatu mendetik gora iristeak zientzia fikziozko kontua zirudiela. Baina orain, zientziaren eta bizi baldintzen hobekuntzari esker, giza-ia geroago eta luzaroago bizi da, eta orain, nahiko maiz ikusten ditugu ehun urte edo gehiago bete dituzten pertsonak. Arrasaten ere baditugu horrelako ereduak: lau herritar, guztiak 101 urtekoak.

Orain dela gutxi, urriaren 3an, hain zuzen ere, Candido Moralejak 101. urteurrena bete zuen; datorren hilaren 5ean, adin berbera izango du Isabel Pinachok; irailaren 12an, Francisca Sánchezek egin zituen 101 urteak; eta maiatzaren 25ean, Ramona Urbietak. Horiek dira, hortaz, Mondragoeko pertsona nagusienak.

"INDAR FISIKO ETA ESPIRITUALA"

Francisca Sánchez Iturbide egoitzan bizi da. "Zainketa berezia behar dute, jakina; baina ez gai-

nerako pertsona nagusiek baino gehiago", azaldu du hango langile batek. "Baliteke hirurogeita hamar urteko bateren bat ehun urteko beste bat baino txarrago egotea. Norbera zelakoa den, hori da erabakigarria. Indar fisiko eta espiritual kontua da adin horretara iristea", gaineratu du.

Luze bizitzeko, gazpatxoak

Osasun aldetik, beste edadetuen inbidiarik ez dute 100 urtetik gorakoek. Mondragoetarrek, behintzat, ez dabilta botika askoren beharrean: bihotzekoak galarazteko, komunera ondo joateko eta lo egiteko pilulak hartzen dituzte, besteak beste. Eta Franciscak badu sekretu-txo bat: gazpatxo asko jan izan du eta jaten jarraitzen du.

ATSEDEN HARTU

Mendetik gorako mondragoetar batzuk etxean bizi dira; hori da Isabel Pinachoren kasua, adibidez. Baina etxean zein egoitzatan bizi, ezinbestekoa dute pertsona horiek bateren bat ondoan izatea, gau eta egun, ezin direlako euren kabuz baliatu. Etxean bizi direnen kasuan, seme-alabak arduratzen dira horretaz.

Bizimodu antzerakoa darimate mondragoetar horiek guztiak: eguneko zati handiena ohean pasatzen dute; jan ere, han egiten dute. Baina mugitu egin behar dira, bestela, gorputza zauriz bete daiteke. Bizitza luzea dute atzean, eta horretan guztian pasatutakoaren atsedena hartu beharra dute orain.

Hiru zenbakidun adin horrek bestelako eraginak ere izan ditu: dagoeneko ez dute apenas berbarik egiten, eta askotan ez dira gauzez jabetzen. Baina ez die umorea aldatu: "Jenio txarra ateratzen du batzuetan, eta gainera, gura duena ederki ulertzen du, bai!", diosku Maria Pilar Madariagak, Isabelen errainak.

LABUR

Hemendik eta hilaren bukaera bitarteko urtebetetzeak Iturbide egoitzan

Iturbide egoitzako bizilagunak hainbat urtebetetze ospakizun egingen ari dira urrian. Hemendik eta urriaren bukaera bitartean, ondoko nagusiek izango dituzte urtebetetzeak: hilaren 20an, Maria Luisa Escudero; 27an, Rosario Aranak; eta bukatzeko, urriaren 29an, Eusebia San Miguelek. Zorionik beroenak, bada, horiei guztioi, eta urtebetetze egun polita pasa dezazuela!

Gripearen aurkako txertoa hartzera animatzen dituzte 65 urtetik gorakoak

Osasun arduradunek dei berezia egiten diete 65 urtetik gorakoek gripearen aurkako txertoa hartzeko, eurak dira-eta arrisku handieneko multzoa. Urriaren 31ra arte izango da gripearen aurkako kanpaina. Ambulatorioan edo auzo alkatetxeetan har dezakete txertoa; edo etxean bertan, irten ezin badute.

Emakumearen eta erretiroaren gaineko hitzaldia antolatu du Ekin elkarteak

Ekin Emakumeak elkarteak hitzaldia antolatu du urriaren 25erako, eguna. *Emakumea eta Jubilazioa: sortzen diren gorabehera eta kezka* du izenburua. Gipuzkoako Alargunen Elkarteak kide batek egingo du berba. Berbaldia emakume elkartearen egoitzan izango da, Pablo Uranga kalean, 19:00etan. Agertu gura duten guztiak dago zabalik parte hartzea.

ZAHARREN AHOTIK

Pedro Zumelaga

BEHARGIN ERRETIRATUA

Erdiko Kalen jaio zen Pedro Zumelaga, 1914ko ekainaren 29an. Hainbat lantegitan ibiltzeaz gain, idazle eta abeslaria ere izana da.

Kantari bikaina izana zara.

Orduan, orain ez bezala, emakumeek umeei asko kantatzen zieten, eta neuri hortik datorkit zaletasuna. Maisuek esaten zidaten ahots ederra nuela, baina besteak endredatzen nituela...

Baina zuk ez zenuen etsi...

Ez horixe! Eta azkenean, lortu nuen nire helburua. Hamahiru bat urte nituela, zartzuela bateko protagonista izatea eskaini zidaten. Gerora, 1944 eta 1945ean, Jai izeneko talde txikia sortu genuen Luzio Markaidek, Jose Azpiatzuk, Ramon Herizek, Jesus Palaciosok, Felix



Ugaldek eta seiok. Baritonoa nintzen taldean. 1956tik aurrera, David Arzamendi izan nuen maisu eta gidari.

Une bereziren bat gogoratzen duzu?

Goikobalu abesbatzak egin zidan omenaldia, 1993an, Santanderren, Beethoven-en 9. Sinfonia eurekin abestu eta gero.

TTUKUN

- ¥ Fotokopiak
- ¥ Liburu jostekak
- ¥ Fotokopiak koloretan
- ¥ Planoen kopia
- ¥ Offset-a

Ferrerias, 23 ¥ ARRASATE ¥ Tel.: 943 79 46 62

MADINA ZURAK

Aroztegia

- ¥ Olak
- ¥ Aglomeratuak
- ¥ Kontraxapatuak
- ¥ Tablexa
- ¥ Ateak
- ¥ Egurrezko leihoak
- ¥ Oin-inguruak
- ¥ Zangoak
- ¥ Aroztegiko osagarriak

Zarugalde, 38 • Tel.: 943 79 13 78



ARETXABAETA
Inaxio Garro
Urriak 13an urtebetetzea.
Urte askotarako!



ARRASATE
Maribel Hernandez
Urriak 20an urtebetetzea.
Zorionak. Etxekoan partez.



ARETXABAETA
Nerea Arriola
Urriak 12an urtebetetzea.
Urte askotarako!



ARRASATE
Aroa Etxaniz
Urriak 19an 16 urte. Zorionak etxekoan partez.



LOGROÑO
Elena Rodrigo
15an 29 urte. Urte askotarako! Etxekoak.

BABESLEA

Juan Manuel Berrueta

ARGAZKILARIA



- Estudioa
- Erreportaiak
- Bideoa
- Argazkizaleen txokoa

Iturriotz kalea, 24. ARRASATE. Tel.: 943 79 19 71 / 658 75 58 18.

Adi! Hurrengo zenbakian, **urriaren 19tik 26ra** bitartekoan zorion agurrak argitaratuko ditugu. Argazkiak martitzera arte jasoko dira ARRASATE PRESSEko egoitzan.

Zorion itzazu zure lagun
eta senitartekoak.

Zatoz Arrasate Pressera argazki
batekin eta utzi gure esku!
Otalora lizentziaduna, 31.

IBAI ARTEK 500.000 PEZETA Zozketatuko DITU

Zatoz, erosi eta lor ezazu sari berezi hau

Azken orduko aldaketak direla medio,
urriaren 26an, egubakoitza, egingo da.
Herriko plazan, arratsaldeko 19:00etan.
Arrasateko Arku tiroketa taldearen eskutik.

Parte hartu!!

IBAI ARTEK 500.000 pezeta oparitzen dizkizu erosketak egiteko. Lor itzazu txartelak IBAI ARTEko dendetan.

AKADEMIAK

PARLANCE - Ferrerías, 11

JANARI DENDAK

EROSLE - Zerkaosteta, 16
FELI - Okendo, 3

ANIMALIA DENDAK

ARRASATE ZOO - Zarugalde 44

AHOLKULARITZAK

URRATS - Zarugalde 3

BANKETXEAK

EUSKADIKO KUTXA - Iturriotz 27
KUTXA - Maisu Arano 8
LA CAIXA - Garibai z/g

KAFETEGIAK/TABERNAK

ITZALA - Iturriotz 19
KAJOI - Erdiko Kale 20
LORATEGI - Iturriotz 7
MONTE - Maalako Errabala 2

HARATEGIAK

LANDALUZE - Iturriotz 7
OTAMENDI - Olarte

ALTZARIAK / APAINKETA

EHUNE - Garibai 8
ETXE MOBILIARIO - Ferrerías 17
EYA SUKALDEAK - Iñazio Zuloaga 4

KIROL DENDAK

OKENDO KIROLAK - Maalako Errabala 13
URIARTE SPORT - Olarte 6

LURRINDEGIAK

ALTUNA - Maalako Errabala 19
LORE - Olarte 10

ZABALETA - Maisu Arano 2
ZARRAOA - Kanpatorpea 4

ETXETRESNA ELEKTRIKOAK

ARANZABAL - Iturriotz 15
EYA - Iturriotz 21
ELKORO EXPERT - Olarte 20
ETXE LAN - Otalora lizentziaduna 14
MILAR ELKORO - Olarte 1

ARTE ETA ENMARKAZIOAK

ARREGI - Maalako Errabala 8
ARTEA - Ferrerías 11

BURDINDEGIAK

ALDEDI - Biteri 8

LORADENDAK

OHIANA - Arrasate pasealekua 8

INPRIMATEGIAK

JG IMPRESION DIGITAL - Arrasate pasealekua 2

ARGAZKI DENDAK

EPELDE - Maisu Arano 8
FOTO IMAGEN - Zerkaosteta 5
IKATZ - Iturriotz 8
JUANMA - Iturriotz 21

IZOKITEGIAK

IZOKITEGI - Iturriotz 7

INMOBILIARIAK

ANBOTO - Iturriotz 11

BITXITEGIAK

ZUBIAGA - Maalako Errabala 5

JOSTAILUAK

ZUR-LUR - Erdiko Kale 19

LENTZERIAK

BEA - Otalora 21
NEREA - Erdiko Kale 28
SIKOL - Olarte 31
TITARE - Olarte 6

MERTZERIAK

CECIAGA - Maala 13

OPTIKAK

GARAGORRI - Iturriotz 29

LIBURU DENDAK

HIRE - Iturriotz 4

PAPER DENDAK

TAMAYO - Ferrerías 32

ARRANDEGIAK

TOMAS - Olarte 3

PRENTSA ETA ALDIZKARIAK

KIOSKO PORTALON - M. Arano 3

OPARI DENDAK

BEINKE - Arbolapeta
GALERIA 44 - Zerkaosteta 8

OIHALAK

LILURA - Zerkaosteta 5

JANTZI DENDAK

BELEM - Olarte 6
CONFECIONES MAZA - Erdiko Kale 1
FLASH - Iturriotz 14
GILI-GILI - Iturriotz 9
HAURTXOA - Arrasate p. 4
KILI KOLO - Ferrerías 21
KLAS - Iturriotz 23
LAKET - Otalora z/g

LASAGABASTER - Zerkaosteta 1
LOS VAQUEROS - Zerkaosteta 3-5
LUKO - Erdiko Kale 32
MABEL - Juan Carlos Guerra 2
MARKIEGI - Olarte 2
MODAS MARGA - Iturriotz 21
TROKO - Erdiko Kale 14
UME - Garibai 6
ZR - Olarte 10

OINETAKOAK

BEATRIZ - Erdiko Kale 11
EGIZABAL - Olarte 14
ALONSO - Zeharkale estalia 2
TOTEM - Zarugalde 14
TXUNTURUNBERDE - Maala 23
ZUBIA - Biteri 1

BIDAIK

EROSKI BIDAIK - Maisu Arano 8

GOZOTEGIAK

HEMEN - Seber Altube 8
MURUAMENDIARAZ - Erdiko Kale 28
ONANDIA - Iturriotz 11

ASEGURUAK

SEGUROS ELORZA - Erdiko Kale

BAZARRAK

TOKION - Erdiko Kale 7

ARTILE DENDAK

PHILDAR - Juan Carlos Guerra 1

BIDEO-KLUBAK

V.C. UDALAITZ - Kontzezino 16

Ibai Artek tratu pertsonalizatua eta profesionala eskaintzen dizu. Arrasateko merkataritza etxe handiena.

Txirritola

Egubakoitza

ARAMAIOKO ASTEKARIA

2001eko urriaren 19a

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otalora Lizentziaduna, z/g 2500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com

Bihar, 'rallysprint' a jokatu da Azkoagatik Kurtzetara, aurreneko aldiz

UBANE

Bihar, *rallysprint* a jokatu da Aramaion, Azkoagatik Kurtzetarako bidean. 32 automobilek parte hartuko dute 15:00etatik aurrera. 21 kilometroko ibilbidea egingo dute, banan-banan eta kronometratuta. Irabazleak 100.000 pezeta eta trofeoa eskuratuko ditu.

Bihar, zapatua, *rallysprint* lasterketa jokatu da Aramaion aurreneko aldiz. Hogeita hamabi automobil ibiliko dira lehian, turismo motakoak (AXak, R5 turboak...). 21 kilometroko bidea egin beharko dute, Azkoagatik Kurtzeta gainera eta buelta, pare bat bider. Eta lasterketaren izenak esaten duen moduan, ibilbidea zeinek lehenago egin, hark irabaziko du. Arratsaldeko 15:00etan hasiko da; 14:30erako errepide zati hori itxita egongo da. Horrez gain, lasterketako parte hartzaileek goizeko 10:00etatik aurrera egin beharko dute automobilaren inspektzioa; hortaz, goizetik izango dira Aramaion.

Sari banaketa *rallysprint* a bukatu eta berehala egingo dute. Hiru motako sailkapena izango



AZPIKO RACING KE

Azpiko Racing izeneko taldeak antolatu du lasterketa, Federazioaren babes eta laguntzarekin.

da: orokorra (*scratch* izenekoak; bost sari daude, 100.000 pezetatik hasi eta 25.000raino), auto motaren arabera (hiru sari, 35.000tik 15.000raino) eta euskal

juniorrena (hiru sari, 35.000tik 15.000raino). Bestalde, lasterketa honetan lortutako puntuak honako sariketarako balio dute: Rallysprinten Euskal Gidari eta

Kopilotoen Trofeoetarako eta Rallysprinten junior mailako (25 urtetik behera) Gidarien eta Kopilotoen Trofeoetarako. Azpiko Ragingek antolatu du lasterketa.

Hogeita hamabi automobilek parte hartuko dute lehenengo rallysprint lasterketa honetan

21 Km egin beharko dituzte, banaka eta kronometratuta, Kurtzetatik Azkoagara

Lortzen diren puntuak beste zenbait lasterketarako balioko dute

HERRITARREN HITZA / Rosa Mondragon • Kazetaria

Nolakoak garen

Toki pribilegiatu eta berezi batean bizi gara aramaiorrok. Behin baino gehiagotan entzun izan dugu "Aramaioko, Suitza txikia".

Araban, Zuaiko Kuadrilako herri bat gara, baina badugu Gipuzkoarekin ere lotura nabarmena, Debagoienaren bidez gautzen dena. Araban gaude eta administratiboki lurralde horretako partaide gara, baina eguneko bizitzan badirudi Gipuzkoarekin lotura sendoak ditugula. Nolakoak garen!

Erdigunea Ibarra da eta base-ri auzoak, guztira, zortzi: Azkoga, Barajuen, Arexola, Uribarri, Gantzaga, Etxaguen, Untzila

eta Olaeta. Fisikoki, Anboto, Belamendi eta Udalaiz mendien oinean, Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabak bat egiten duten tokia da.

Herritarrek 1.300 inguru gara. Araban bizi arren, lana, erosketak zein bizitza sozialaren zati bat Debagoieneko herrietan egiten dugu; hortik askotan entzundakoa: "Aramaiokoa lo egitera bakarrik joaten naz". Bai, beharbada horrela da, azkenaldi honetan inguruko herrietako jende



"Gure aurrean desafio handi bat dugu"

ugari etorri baita herrira bizitzera.

Zuiako Kuadrilak argitaratzen duen *Herrietan* aldizkaria jasotzen dugu hiru hilabetetik behin, eta Aramaiokoak ez ezik, Arrazua, Legutiano, Urkabustaiz, Zigoitia eta Zuia herrietako albisteen berri jasotzen dugu bertan. Horretaz gain, Txirritola euskara talde-

ak izen bereko berripapera atera izan du bere sorreratik, gaurtik aurrera *Goienkariako* formatu berrian ostiralero gure etxeetan

jasoko duguna. Esku artean duzuen hau da lehenabizikoa. Zorionak proiektu honen atzean lan egin eta lanean jarraitzen duen ekipo osoari!

Gure aurrean, desafio handi bat dugu, beraz. Batetik, Aramaion ez delako beste munduko ezer gertatzen, nahiz eta elkarte ugari egon; eta bestetik, antolatzen dena ere ez delako, agian, behar bezala aditzera ematen edo behar bezala jasotzen. Informazio sarea antolatzea egokia litzateke, beharbada, gertatu, gertatzen edo gertatuko denaren berri jaso ahal izateko. Animo, segi aurrera, eta laguntzarik behar izanez gero, ba eskatu!

LABUR

Aramaioko II. argazki rallya datorren zapatuan

Datorren zapatuan, urriaren 27an, Aramaioko II. argazki rallya jokatu da. Hiru gai finiko, bi aukeran eta bat isilpekoa landu beharko dira. Edozeinek parte har dezake; aldezturik eman behar da izena Udalaren izenean dagoen Vital Kutzako kontuan edo, egun berean, 08:00ak eta 09:00ak artean Sastiñan. Karreteak rallya amaitzean bueltatuko dira; diapositiba azaroaren 16a baino lehenago eraman beharko da Udalera bulego orduetan, edo buzoian utzi.

TELEFONOJAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIAK

Osasun etxea (txandak)	945 44 53 40
Botika	945 44 50 03
Udaletxea	945 44 50 16
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Gurutze Gorria (Legutio)	945 45 52 52
San Martin Eskola	945 44 50 04
Taxia eta autobusak	945 44 50 33
Udal kiroldegia	945 44 53 35
Postetxea	945 44 50 83
Zulako Eskualdea	945 43 01 67
Suhiltzaileak (Zubillaga)	943 78 28 00

AUTOBUSORDUTEGIA

ARRASATE	ARAMAIO	GASTEIZ
07:00	07:15	08:00
12:00	12:15	13:00
15:20	15:35	16:20
	20:30	20:45
GASTEIZ	ARAMAIO	ARRASATE
08:30	09:15	09:30
13:10	13:50	14:05
	17:00	17:15
19:30	20:15	20:30

OHARRAK

BIDE MOZKETA

Bihar, zapatua, *rallysprinta* jokatu behar dela eta, Azkoagatik Kurtzetarako bidea itxita izango da 14:00etatik 20:30era.

OSOKO BILKURA

Datorren eguaztenean, hilerio moduan, ohiko osoko bilkura egingo du udalbatzararak. Arratsaldeko 18:30etik aurrera izango da Udaleko areto nagusian.

IBARRAKO LANAK BUKATZEAR

Ibarrako banaketa-hodi nagusiaren eraberritze eta hobekuntza lanak dezente aurreratuta doaz, eta espero dute datorren asterako bukatzea. Ur biltegitik Ibarrara doan hodi nagusia konpontzen dihardute. Apirilean adjudikatu zizkioten lanak, 10.629.080 pezetan, Excavaciones Arrasate enpresari.

LUDOTEKA ETA LIBURUTEGIA


Pasa den eguaztenean ipini zuten abian ludoteka kultura etxean bertan. Azaroaren hasieran, berriz, liburutegiaren txanda izango da; hau ere, kultura etxe berrian kokatuko da.

KULTURA

Bilbora joan zen lehenengo saria. Aramaioar bat hirugarren gazte mailan.

Berrogeita hamazortzi lagunek parte hartu zuten Aramaioko X. margo lehiaketan: nagusien mailan 44 margolarik eta gazteen mailan, 14k. Guztien artean 16 finalista aukeratu zituen epaimahaiak; eta horietatik sei sari-tu zituzten. Nagusien mailan, Jose Manuel Méndez bilbotarraren margolanak irabazi zuen; bigarren Aitor Lajarinena eskoriatzarra izan zen; eta hirugarren, Koldo Gojenola eibartarra.

16 urtetik beherakoen artean, Miranda de Ebroko Arturo Rondak irabazi zuen; bigarren lekuan Marcos Cifo González Miranda de Ebrokoa ere; eta hirugarrenean Julen Beitia aramaioarra. Lehiaketaren ondoren, erakusketak antolatu zuten parte hartzaile guztien lanekin, eta hantxe izango da datozen bi asteotan.



USOA AGIRRE

BOTEPRONTOAN/ Julen Arriolabengoa · Filologoa

“Cachopinen testuaren arabera, Lope Agirre Aramaioko Zabolán jaio zela esan daiteke”

Julen Arriolabengoa Hondarribian bizi da eta Irungo Hizkuntza Eskolan dihardu lanean. Ipuinak idatzi izan ditu, baina azkenaldian, artikuluak idazten ari da. *Karmel* aldizkarian, Lope Agirreraren gainean idatzi duen bat argitaratu dute, eta Julenengana jo dugu, oraindik publikatu barik zeuden Lope Agirreraren datuak kontatu ditu-eta..


Zergatik Lope Agirre?

Kasualitatea izan zen. Doktore tesia prestatzen ari naiz Ibar-guen Cachopinen gainean. XVI. mendeko kronika lantzen ari naiz horretarako, Bilbon eta Madrilen artean sakabanatuta dagoen eskuizkribu bat. Eta hor Lope Agirreraren gainean testu labur bat aurkitu nuen, inoiz publikatu ez den informazioarekin. Pent-satu nuen pertsonaia interesan-

tea zela eta haren gainean idaztea erabaki nuen.

Kontatuko diguzu apurtxo bat?

Nik hipotesi bat jaurti dut, XVI. mendean idatzitako testuan oinarrituta. Izan ere, Lope Agirreraren gaineko biografian oso dokumentu fidagarri gutxi dago. Iruzkinez dago osatua, gehienbat. Eta zalantzan dagoen datuetako bat haren jatorria da. Orain arte uste izan dugu oñatiarra zela, hark horixe esaten zuelako. Nik diot, oster, beste aukera bat badagoela: Cachopinen testua irakurtzean badaukat arrazoirik pentsatzeko Lope Agirre zerbait ezkututzen zegoela: haurtzaroa eta gaztaroa, alegia. Cachopinek dio Lope Agirre Zabolán jaio zela. Gero, Lope Agirreraren ama alar-gundu eta Agirre baserriko Esti-



baliz Agirre alargunarekin ezkondu zen. Azken hark seme-alabak zituen; hortaz, Lope Agirrerendako ez zegoen ondasunik eta Gasteizera bidali zuten, zapatari ogibidea ikastera. Han zegoela, neska bat bortxatu, eta hiltzera zigortu zuten. Ez dakigu zelan, (orduan diru asko behar zen) baina kartzelatik irten zen eta Ameriketara alde egin zuen. Baina garai hartan, Euskal Herriko seme-alabek (bizkaitar esaten zioten) besteek baino pribilegio gehiago zeuzkaten, eta Lope Agirrerari interesatzen zitzaion bizkaitarra zela esatea; horrela, pribilegioak gordetzen zituen. Eta Lope Agirrek Oñati aukeratu zuen, antza denez, bere familia handik zetorrelako eta, gauzak horrela, bizkaitartasuna agerian jartzeko.

**ASESORIA
ARRASATE**

- Juridikoa
- Lan arloa
- Fiskala
- Bankinter finantza agentea

Erdiko kale, 32 1º I • ARRASATE
Tel.: 943 79 01 47 Faxa: 943 79 73 00

**BASATI
TABERNA**

PINTXUAK, BOKATAK ETA TRAGUAK

TEL. 943 711767

UGARTE

**Industria
hornidurak**

Arrasate pasealekua
Tel.: 943-79 83 96 / 943-79 23 00
Faxa: 943-793412

ERRETRATU ZAHARRA


ARRASATE PRESS
aldizkariaren hasierak

Etxean geratuko gara oraingo asteko argazki zaharrarekin. ARRASATE PRESSen hasierara egin dugu salto; aldizkariak bi urte pasatxo bete zituen garaira, hain justu. Ospitale Zaharrean egiten zen orduan, beste bi lekutatik pasatu eta gero; lehen egoitza Zeharkale Estalian egon zen, eta bigarrena, Arrasate pasealekuan. Ospitale Zaharrera pasatu ziren segidan, eta gero, Otalora Lizentziaduna kalera. Lantaldea ere aldatuz joan zen. Hasieran, Joxe Arantzabal zen zuzendaria eta Jose Luis Agote maketagilea. Bi urte geroago, dagoeneko zuzendaria eta maketagilea aldatuta zeuden. Eta, zer esanik ez, gaur egungoa ikusten badugu.

Argazkian agertzen direnak honakoak dira: eskua jasota Iñaki Mendigurren (Joxe Arantzabal eta Arantzazu Loidi zuzendarien artean sei hilabetez jardun zuen ARRASATE PRESS zuzentzen), haren atzean Agurtzane Loidi dago eta ondoan, Bernardo Kortabarría. Eserita dagoena, berriz, Goio Arana da, orduko ARRASATE PRESSko maketagilea eta oraingo *Goienkariako* maketagilea.

Ordutik hona, bide luzea egin du ARRASATE PRESS aldizkariak, etengabeko bilakaeran, gainera. Esaerak dioen moduan: "Aurrera eiten eztuna, beti atzeraka".

Argazkia: ARRASATE PRESS
Informazioa: ARRASATE PRESS
Urtea: 1991ko urria



NOLA ALDATUDIRENGAUZAK

Kanpanzarko
bidegurutzeta
eta Otalora

Aspaldi idatzitako abesti batek atal honen izena behin baino gehiagotan errepikatzen zuen.

Atala estreinatzeko, Kanpanzarko bidegurutzeko argazkia aukeratu dugu. Garai hartan, Zarugaldekoa zen errepide nagusia, eta San Andresera joateko errepiderik ez zegoen. Ezkerraldean, Aramaioko erreka zegoen, eta gaur egungo biribila...



± 1910

Gaur egun dagoen biribila ez da argazkian falta den gauza bakarria. Besteak beste, Muxibarko dorrea ere egin barik zegoen.



2001

Gaur egun dagoen Muxibar tabernaren aurretik Damashoren taberna zegoen, gerora Errartena izango zena.



Parques y Jardines

• Parke eta lorategien sorkuntza.

• Lorazaintzako mantenimendua orohar.

• Landare-birsorkuntza hidroereintzaz.

Casa-Torre kalea. Tel.: 94 681 90 82
ABADI O (Bizkaia)





Haizetakoak 1,46 m².

Zenbaki hutsa baino, adimen zabala.



Automobil baten helburua da zu leku batetik bestera eramatea. Baina Peugeot 307 berrian garrantzitsuen ez da ailegatze hutsa, eramaten zaituen espazioa baino. Monobolumenaren leku zabalak eta Berlina baten arimak bat egiten dute 307aren egitura osatzeko, eta, horrela, barrualde zabala, modularitatea eta argitasuna ematen dizkizu. Termikoki isolatutako haizetakoak beroa pilatzea ekiditen du, eta sabaiaren altuerak eta aulkien arteko lekuak bidaiari-leku ezin hobe sortzen dute, erosotasunaren aukera guztietara irekia.

Peugeot 307 gama: gasolina 75 ZPtik 138 ZPra (1.981.000 pezetatik/11.906.05 eurotik). Diesela HDI 70 ZPtik 110 ZPra (2.298.000 pezetatik/13.811.26 eurotik)

PEUGEOT 307. EZ DA ZENBAKI HUTSA.


ETORMOBIL

Otaola etorbidea 22
Tel.: 943 20 09 66
EIBAR

EKOMOBIL

Zaldispe auzoa z/g
Tel.: 943 79 50 71
ARRASATE

307 
PEUGEOT



*Gozatu momentuko
fruituez...*

*Gozatu Ikerren
sukaldeez.*

IKER

SUKALDE ETA BAINU ALTZARIAK

